BARRUAN, ZURE HERRIKO
URTEKARIAK

‘URTE BERRI, BIZI BERRI’... ADOS ZAUDE? /7

Goienka

EGUBAKOITZA • 2001eko abenduaren 28a • II. urtea • 47. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a

Evaristo, abestietan zein liburuetan, gure garaiko kronikalaria

ANTONIO CANCELO

“Enplegua eta aberastasuna sortzen eta garatzen lagundu dudala uste dut” **/8-9**

Datorren martitzenetik, hau da, urtarrilaren 1etik aurrera, euroak erabiltzen hasiko gara. LEIRE KORTABARRIA

ASTEKO GAIA: TXANPON BERRIA

Euroa iritsi da

Europako hamabi herrialdek erabiliko dute euroa. Geuk ere, pezeten ordez, euroak izango ditugu urtarrilaren 1etik aurrera. Hala ere, martxoaren 1era arte, pezetak bizirik iraungo du. **/2-3**

ESKORIATZA

Urtarrilean hasiko dituzte Udaletxea berritzeko lanak

Irailean amaituta egongo dira Eskoriatzako Udaletxea berritzeko lanak. Lanek irauten duten bitartean, Udaleko zerbitzuak lehengo autoeskola zaharreko bulegoetan izango dira. **/5**

OÑATI

Zubikoa kiroldegia handitzeko proiektua aurrera

Zubikoa kiroldegia handitzeko proiektua idazteko lana esleitu berri du Udalak. Kantxa berria, aldagelak eta lur azpiko aparkalekuak egingo dituzte eraikin berrian. **/4**

OXEL EROSTARBE

Izoztearen ondorioak

Egunak igaro ditugu zero azpiko tenperaturekin, erreka bazterrak eta putzuak izoztuta agertu zaizkigu, erorikoak ugariak izan dira... Aspaldian baino lan handiagoa izan dute udaltzainek eta larrialdietakoek. Argazkian ikus dezakegun autoa Uberako baserri-bide baten kaminotik irten zen. Ez da bakarra izan.

Aisialdirako ur parkea egin nahi du Mankomunitateak Urkuluko urtegian

Urkulun ur parkea egin nahi du Debagoieneko Mankomunitateak. Urtegia handitu eta horren zati bat ur parkerako egokitu gura du. Besteak beste, urtegiari itzulia emango dion tren txiki bat jarri gura dute, baita zaldiak ere. Horrez gain, bainurako tokiak, ziburuak, jatetxe bat terraza eta guzti, parkearen itzuli birtuala egingo duen gela bat, urtegiko hegaztien gaineko argazki eta informazioa eskainiko dituen bideo interaktiboa... Egitasmoak Europako dirulaguntzak jasoko lituzke. Udal batzuk proiektuaren aurka dauden arren, izena ere zehaztu dute: *Aqua-Urkulu Park*.

COMERCIAL BRUNET

MOTOZERRA ESKAINTZA BEREZIA!

Motozerra zaharra ekarrita, **37.398 pta.**-raino emango dizkizugu

Ozaeta 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

ETA GAINERA... GABONAK 2001 ARGAZKITAN, ZORTZI ORRIALDEKO GEHIGARRIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Euroa iritsi da

Ekonomia iraultza izango da Europa osoan

LEIRE KORTABARRIA

Imajina ezazue japoniera bakarrik berba egiten duen japoniar bat. Imajina ezazue japoniar hori, Europan zehar turismoa egiteko asmoz, Berlinera iristen dela, eta yenak euroengatik aldatzen dituela han. Berlinen egun batzuk igaro ondoren, autoa errentan hartu eta Holandarantz jotzen du; hango kanalak utzi eta Belgika aldera joaten da, eta handik, abiadura handiko trenean, Parisera. Oporraldia bukatzeko, hegazkina hartu eta Debagoienera iristen da. Japonera bueltatzerakoan, herrialde bakarrean izan den sentsazioa izango du: ez du mugarik pasatu behar izan, eta moneta bakarra erabili du denbora guztian.

Adibide hori erabili izan du Pedro Solbesek, Europar Batasuneko Ekonomia eta Moneta komisarioak, euroaren sarrerak ekarriko duen iraultza ulertarazteko. Eta iraultza horren atarian gaude, 2002ko urtarrilaren 1ean gertatuko da-eta.

HAMABI HERRIALDETAN

Europako hamabi herrialdek erabiliko dute euroa. Geuk ere, pezeten ordez, euroak izango ditugu 2002tik aurrera. Martxoaren 1era arte, pezetak bizirik iraungo du; baina ordutik aurrera, ez dugu euroak etxean uzteko inongo aitzakiarik.

LEIRE KORTABARRIA

Zortzi txanpon eta zazpi billete erabili ahal izango ditugu.

FERNANDO RETOLAZA / EUSKADIKO KUTXAN EURORA EGOKITZEKO PROGRAMAREN KOORDINATZAILEA

"Konpetentziak prezioen egonkortasuna ekarriko du"

Fernando Retolaza elgetarrak darama Euskadiko Kutxan eurora moldatzeko programaren ardura. Hori dela eta, moneta berriaren gaineko detaile guztien berri dauka.

Zortzi euro txanpon ez ote dira gehiegi izango?

Hasieran, euro txanpon guztiak erabiliko ditugu, baina hemendik bizpahiru hilabetera, bi zentimoko txanponak-eta alde batera utziko ditugu, pezetekin gertatu zen bezala; orain ere, ez ditugu pezeta txanpon guztiak erabiltzen.

Jendeari zein jarrera ikusten diozu?

Lasai dago. Prezioen ustezko igoera dute ardura nagusi. Dendariak ere larri samar dabiltza, hasieran behar bezainbat txanpon eta billete edukiko ote dituzten. Ardura hori dute.

Prezio igoera hori honezkero gertatzen hasia da eta euroa ez da iritsi...

"Prezioak biribiltzeak igoera dakar; %3ko inflazioa ekarriko du horrek"

Bai, prezioak biribiltzen hasiak dira, eta horrek igoera dakar. Kalkuluen arabera, %3ko inflazioa ekarriko du horrek. Baina konpetentzia librearen eraginez, gero egonkortasuna etorriko da.

Epe luzera, zein abantaila izango ditu euroak?

Atzerrira joaten garenean, ez dugu dirua aldatu beharrik izango, ez eta Europar Batasunetik kanpoko herrietara joateko ere: orain dolarra onartzen den moduan, onartuko digute euroa edonon. Bestalde, moneta berbera erabiltzeak ekonomia egonkortasun handiagoa emango dio Europari beste moneta handien aurrean, dolar estatubatuarra edo japoniar yena kasu. Hori bai, moneta bera erabili arren, kafe batek ez du berdin kostatuko hemen edo Parisen; herrialdeen arteko desberdintasunak ez ditu euroak desagerraraziko.

Eta euroari uko egin dioten lurraldeek, zer?

Baliteke Erresuma Batuak, Suediak eta Danimarkak ere euroa hartzea erabakitzea. Gainera, ekialdeko lurralde batzuek interesa dute Europar Batasunean sartzeko, eta haietan ere ezarriko litzateke euroa.

Euroaren eta bere erabileraren gaineko hainbat argibide eta gomendio

‘SUPERBIRIBILTZEA’

Hainbeste igoko dira prezioak?

Hala diote ekonomian adituek. Hori zergatik gertatuko da? Merkatari askok ‘superbiribildu’ egingo dituztelako prezioak, ustez, gauzak errazteko. Esaterako, jatetxe baten eguneko menua 1.300 pezeta kostatzen bada, 7,81 euro izango lirateke; baina luzera, baliteke zortzi eurotan finkatzea salneurria. Hori ez dago debekatua, konkurrentzia librea dagoelako. Tamalez, kontsumitzaileak ezin dezake ezer egin.

GABON ZAHARRA

Abenduaren 31ko gauerdiaren ondoren, zer gertatuko da tabernetan?

Aholku orokorra da urtarrilaren 1etik aurrera eurotan ordaintzea. Baina gomendioa ez da zorrotz-zorrotz aplikatu behar. Gauerdiaren ondoren hartutakoak pezetatan ordaintzea aholkatzen da, eta horren ondoren, euroak erabiltzen hastea.

DERRIGORTASUNA

Martxoaren 1era arte pezetatan ordaintzen badut?

Ez da gomendagarria; alde batetik, zure hobe beharrez, eta ahalik eta lasterren ohitzeko, urtarrilaren 1etik hasi beharko zenuke eurotan ordaintzen. Bestalde, taloi, kredituzko txartel edo transferentzia bidez ordaintzen baduzu, eurotan besterik ezin izango duzu egin, eta kutxazainek euroak besterik ez dizkizute emango.

ZENTIMOAK

Ez da hobe zentimoko txanponak ez erabiltzea?

Pezetako txanponak desagertuz joan ziren moduan, askok uste du zentimoko txanponak alboratu egingo ditugula. Baina txanpon bakoitzak bere balioa eta xedea du, baita zentimoek ere. Kontua da zentimoko txanponak 1,66 pezeta balio duela; hamar zentimo, 16,6 pezeta. Kontuan hartzeko txanpona, hortaz.

PREZIOEN BATUKETA

Produktu asko erosten baditut, noiz biribildu?

Gomendatutako arauak agintzen duenez, prezioak batu ondoren egin behar da biribiltzea. Aldea egon daiteke. Adibidez, 0,7561 euroko esne litroa, 0,459ko ogia, 0,9015eko egunkaria eta 0,6681eko patata kiloaren salneurrien batuketa egin eta emaitza biribiltzen badugu, 2,7847 euroko erosketa irtengo zaigu, hau da, 2,78 euro. Aldiz, prezio bakoitzaren biribiltzea egiten badugu eta ondoren horiek batu, 2,79 euroko ordainketa irtengo

zaigu. Aldea txikiagoa edo handiagoa izan daiteke. Teorian, merkatariak emaitza biribildu beharko luke.

BANKETXEAK

Zelan biribilduko dute banketxeek?

Merkatariak ez bezala, finantza erakundeak derrigortuta daude Espainiako gobernuak gomendatutako biribiltze araua aplikatzera: hau da, hirugarren dezimala ‘bost’ edo handiagoa baldin bada, bigarren dezimala unitate bat igotzen da; bestela, ez da aldatzen. Horrek esan gura du banketxe eta aurrezki kutxen produktu guztiak, hots, kontu korronteak, aurrezki kontuak, kontratuak, nominak… biribiltze araua jarraituz ipiniko direla eurotan.

TRIKIMAILUAK

Zer egin euroetara ohitzeko?

Badago gogoratzeko oso erraza den trikimailua: sei zenbakiarekin jokatzea, eta euro kopuru bat zenbat pezeta diren jakin gura izanez gero, euro kopurua ehunekin biderkatzea. Euro bat 166,386 pezeta direla gogoratu barik, hartu kontuan 0,6 euro ehun pezeta direla; sei euro, mila pezeta; hirurogei euro, 10.000 pezeta, eta abar.

ATZERRIAN

Atzerrira banoa, euroak erabili ahal izango ditut?

Euroa izango da Espainiako, Frantziako, Alemaniako, Italiako, Portugalgo, Irlandako, Luxenburgoko, Herbeheretako, Belgikako, Italiako, Austriako, Greziako eta Finlandiako moneta ofiziala. Hortaz, horietan normaltasun osoz erabiliko duzu euroa, nahiz eta, itxura aldetik, herrialde bakoitzean euroak desberdinak izan.

GARRAIO PUBLIKOA

Ez da nahasterik sortuko autobusean?

Horrelakoak saihesteko, gomendioa da, pezetatan ordaindu behar baduzu, prezio justua ordaintzea. Bonuak erabiltzeko aukera baldin baduzu, hobeto. Horrela, itxoite ilara luzeak galaraziko dituzu.

Adio pezetari

Euroari ongietorria egitearekin batera, 134 urteren ondoren badoakigun aspaldiko ezagun bati adio esan beharko diogu: pezetari, hain zuzen ere. Gure poltsikoetan eraman izan dugu betidanik, baina zer dakigu pezetaz?

Helburu politiko eta ekonomiko jakin batzuk betetzeko jaio zen pezeta, eta testuinguru historiko oso konkretuaren barruan ulertu behar da bere sortzea. Espainiako alderdi progresistak Isabel II.a erregina bota zuen 1868. urtean. Iraultzaileek Europako modernotasun kutsua eman gura zioten Espainiari, eta horretarako, Karlos artxidukeak dekretu bat egin zuen 1868ko urriaren 19an, eta pezeta sortu zuen. Ordura arte, Espainian erreala eta ezkutua erabiltzen ziren. Espainiako ekonomia eta merkataritza bateratzea eta indartzea zuen helburu moneta berriak. Gaur egun hainbesterainoko aldaketa ez iruditu arren, garaian sekulako iraultza izan zen pezeta, eta Espainiaren atzerapena, neurri handi baten, konpondu zuen.

Eta badakizue nondik datozen “txakur handi” eta “txakur txiki” izenak? Iraultzan, erregeen irudien ordez, beste batzuk inprimatu zituzten billeteetan, tartean lehoi batzuena. Herritarrek, umore onez, “txakur” deitzen hasi zieten lehoiei, eta hortik datoz izendapen horiek.

AGUSTIN MURILLO / TABERNARIA

“Pezetak erabiliko ditugu 31n”

Mondragoeko Gure-Leku tabernako ugazaba dugu Agustín Murillo, eta, tabernari guztiei bezala, euroaren etorrerak nahiko buruhauste ekarri dizkio Agustini.

2002tik aurrera eurotan ordaintzera animatzen gaituzte. Zer gertatuko da Gabon zahar gauean?

Auskalo! Tabernariok ahal bezala moldatu behar izango gara, eta bezeroek jokatzen dutenaren arabera jokatu. Nik uste dut gehienek pezetak erabiliko dituztela; hortaz, geuk ere bai. Hori bai, nik neure euroak ekarriko ditut, badaezpada ere. Gauza asko entzuten ari gara, sekulako nahastea izango dela Gabon zaharrekoa, baina nik uste dut ez dela hainbesterainokoa izango.

“31ko gauean, tabernariok bezeroen arabera jokatu beharko dugu”

Egin dituzue praktikak euroarekin?

Horretan dihardugu. Batzarrak egin ditugu herriko tabernariok, eurotan prezio zerrenda adosteko. Hasieran zoratuta ibiliko gara, baina tira… Oraindik ez dakizkigu prezioak eurotan; ordenagailuan pezetatan ere baditugu, ez nahasteko.

Edarien prezioak igo dira?

Gabon aldera igo egiten dira urtero-urtero; baina bai, biribiltzeak ekarri du garestitzea.

Ebaki bat, mesedez… Zenbat da?

1,05 euro. Kubata bat gura baduzu, 4,50 euro; Koronita bat, 2,40; zuritoa 0,75 kostatuko da; garagardoa, 1,40; Errioxako ardoa, 0,75… Horrela finkatu ditugu guk prezio berriak, eta inguruko beste tabernetan ere horrela geratu dira.

NEREA IZTUETA / DENDARIA

“Guztiok gara hasiberriak”

Bergarako Dendarien Elkarteko, Bedelkar-ko, presidentea da Nerea Iztueta. Harekin berba egin du GOIENKARIAk, euroa dendariengan ze eragin izaten ari den jakiteko.

Dendariak gertu zaudete euroaren etorrerarako?

Baietz uste dut. Ez dugu aparteko ezer egin; hori bai, dendariok informazio mordoa jaso dugu Foru Aldunditik, Eusko Jaurlaritzatik… Hortaz, nahiko ondo prestatuta gaude.

Bezeroak ausartuko dira hilaren 1etik aurrera eurotan ordaintzen?

Baiezkoan nago, izan ere, derrigorrezkoa ez izan

arren, kutxazainek euroak besterik ez diete emango. Gainera, prezio guztiak eurotan ipiniko ditugu.

Prezioen igoerarekin arduratuta dago jendea.

Egia da biribiltzearen arauaren ondorioz igoera izan daitekeela; baina bestela, prezioek ez dute zertan igo. Neuk, behintzat, biribiltzea bakarrik aplikatuko dut. Dendariak kontsumitzaileak ere bagara, eta neuk, behinik behin, konfiantza dut dendetan lehengo preziora kobratuko didatela, alegia, ez didatela ziririk sartuko.

Zure ustez, ilara luzeak sortuko dira?

Hasieran, guztiok ibiliko gara zoratuta, bai erosleak, bai eta saltzaileok. Izan ere, guztiok gara hasiberri! Akaso denbora luzeagoa behar izango dugu erosketak egiteko, baina ohituko gara, uste dut baietz.

BERGARA ERROLDA

Egun gutxi barru amaituko da 2001. urteko zentzua egiteko epea

Urtarrilaren 2tik 10era bitartera dute zentzua egin ez duten herritarrek

MONIKA BELASTEGI

Laster bukatuko da 2001eko errolda egiteko epea. Zentsua egitea derrigorrezkoa da, eta urtarrilaren 2tik 10era egin ahal izango da, udaletxean.

Egun gutxi barru amaituko da 2001. urteko zentzua egiteko epealdia. Hortaz, oraindik ere zentzua egin ez duten herritarrendako bulegoa irekita egongo da 2002. urteko urtarrilaren 2tik 10era bitartean. Zentzua-bulegoa udaletxean dago, lehen solairuan, eta gogoratu zentzua egitea derrigorrezkoa dela.

Zentzua-bulegoaren ordutegia ondorengoa da: astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

Horrekin batera, gogoratu familiako kide guztien nortasun agiriaren zenbakia eta letra behar direla zentzua egiteko.

Bestalde, udaletxera joan ezin dutenek 619052783 telefonora dei egin dezakete, eta horrela, zentzua egiten ari den langileetako bat joango zaie etxera. Espainiako Estatistika Erakundea (INE) egiten ari da biztanleria eta etxebizitza zentzua. Horretarako, Euskal Estatistika Erakundearen laguntza du, eta Bergararen kasuan hamabi lagun ibili dira, etxez etxe, zentzuako datu horiek eguneratzen; izan ere, azkenak duela hamar urtekoak dira. Zentzua-agente horiek egiaztagiria daramate, INEMeko langileak direla egiaztatzeko.

ARTXIBOA

Zentzua-agenteek egiaztagiria daramate, INEMeko langileak direla frogatzeko.

ANBULATORIOKO ORDUTEGIA

Anbulatoriotik bidalitako oharrak aditzera ematen duenez, datorren astelehenean, abenduaren 31n, anbulatorioak zapatuetako ordutegia izango du, hau da, 09:00etatik 14:00etara.

Pediatraren kasuan, bestalde, 11:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegia izango du abenduaren 31n.

OÑATI KIROLDEGIA HANDITZEA

Zubikoa kiroldegia handitzeko proiektua esleitu du Udalak

Kantxa berria, aldagelak eta lur azpiko aparkalekuak egingo dituzte eraikin berrian

AINTZANE IRIZAR

Zubikoa kiroldegia handitzeko proiektua idazteko lana esleitu berri du Udalak. Zazpi bat hilabete barru idatzita egongo da behin betiko proiektua.

Itziar Zelaia eta Luis Etxegarai arkitektoei esleitu die Udalak Zubikoa kiroldegia handitzeko proiektua. Zazpi bat hilabete barru, behin proiektua idatzita, lanekin hasteko moduan egongo dira.

Udalak uztailean egindako ideia-lehiaketako deialdira hamar proiektu aurkeztu zituzten; batzorde berezi bat ibili da horiek guztiak aztertzen, eta abenduko osoko bilkuran onartu zuten Zelaia eta Etxegarairen ideia aukeratzea.

KANTXA BERRIA

Egungo eraikinean ez dute aldaketarik egingo. Aldameneko lursailean eraikin berri bat egingo dute, 50 bat metro luze izango dituena, Zelaia eta Etxegarairen ideiaren arabera. Kantxa izango da eraikin horretako elementu nagusia; kantxa horrek askotariko erabilera izango du, gaur egungoak bezala: eskubaloia, saskibaloia... Tenis pista moduan ere erabili ahal izango da.

Kale aldera aldagelak egingo dituzte, eta kantxa baino baxuagoak izango dira. Bigarren solairuan gimnasioa eta tatami gela jarriko dituzte. Harmailak ez dira egun daudenen modukoak izango; inguru guztian egon ahal izango dira ikusleak.

Tabernari dagokionez, eraikin zaharraren eta berriaren artean taberna-jatetxe berria egitea proposatu dute arkitektoek. Hala, kirolgunea eta taberna independienteak izango dira.

Azkenik, lur azpiko aparkalekuak ere egin gura dituzte, eraikin berriaren azpialdean; baina ez kiroldegiko erabiltzaileendako bakarrik, herri osoarendako baizik.

Zertzelada

Kantxa izango da eraikin berriaren elementu nagusia; kantxak askotariko erabilera izango du: eskubaloia, saskibaloia... tenis pista moduan ere erabili ahal izango da.

ELGETA BADATOR EUROA

Eurora egokitzeko, prezioak moldatu dituzte tabernariek

Urtarrilaren batean jarriko dituzte indarrean

OXEL EROSTARBE

Urtarrilaren batetik aurrera indarrean izango da euroa. Bezeroak txanpon berrira hobeto egokitzeko, prezioak biribildu dituzte tabernariek.

Datorren urtea euroaren urtea izango dela ez du inork zalantzan jartzen. Txanpon berrira moldatzerakoan bezeroei erraztasunak emateko, prezioak biribildu dituzte herriko tabernariek.

Laster euroarekin ordaindu ahal izango dugu elgetarrok ere. Kontua da gaur egun ordaintzen dugunaren berdina edo gehiago ordainduko dugun. Tabernarien Elkarteak erabaki du prezioen zerrenda berria, eta bakoitzak atera ditzala bere kontuak. Adibidez, kafesnearen prezio berria euro bat izango da (166 pezeta); zuritoarena, 75 zentimo (125 pezeta); kañarena, euro bat eta 35 zentimo (225 pezeta), eta ardoarena, 35 zentimo (58 pezeta).

GUDARIEI OMENALDIA INTXORTAN

Bestalde, urtarrilaren 6an, Elgeta eta Elorrioko Askatasunak antolatuta, atzoko eta gaurko gudariei omenaldia egingo zaie Intxortan. Eguerdian, salda, txorizoa eta sagardoa banatuko dira. Trikitilariak, bertsolariak, txalaparta eta ekitaldi politikoa izango dira.

Eta abenduaren 31n, bilkura izango da plazan *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean, iluntzeko 20:00ean.

ANTZUOLA

Domekero zinema emanaldia eskainiko dute parrokiako aretoan

AINTZANE IRIZAR

Joan den domekan, abenduaren 23an, hasi ziren zinema emanaldiak eskaintzen parrokiako aretoan. Gizarte etxeko lanak amaitu bitartean, parrokiako aretoan egingo dituzte zinema emanaldiak. Datorren domekan bertan, 16:30etik aurrera, *Stupid familia* emango dute. Ahal den neurrian, euskarazko filmak eskaintzen saiatuko dira arduradunak.

BANATZAILEA BEHAR DU GOIENAK

GOIENKARIA eta Bergarako edizioa banatzeko, banatzaile bat behar du Goienak Antzuolan. Interesatuek 943 79 21 00 telefono zenbakira deitu beharko dute.

ARAMAIO KULTURA

San Martin eskolako ganbaran izango du lokala Aramaioko Trikitixa Eskolak

UBANE MADERA

Udalak egindako proposamenak aztertu eta gero, Trikitixa Eskolak behin-behineko lokala izango du herri eskolan. Hain justu, San Martin eskolako ganbaran.

Udalak kultura etxeko eszenatoki azpiko lokalak eskaini zizkien, baina zarata larregi entzuten dela-eta, ez ziren egokiak. Aldiz, San Martin Eskolako ganbaran dauden gelak egokiagoak ei dira eta hara joango da Trikitixa Eskola. Ondorioz, eskolako ganbaran ematen zituzten ingeles eskolak kultura etxean emango dituzte. Sortu zenetik dabil Trikitxa Eskola lokal eske, duela bost urtetik hona. 50 ikasle batzen ditu.

UBANE

San Martin herri eskolako ganbaran egingo ditu entseguak Trikitixa Eskolak.

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak

GASTON Y DANIELA

Kruz Gallastegi, 3 • 943 76 07 37
BERGARA

Gazteendako, umeendako
eta ume jaioberriendako
altzariak eta dekorazioa

ARETXABALETA ENKANTEA

Udalak enkantera atera dituen etxebizitza eta garajea ikusgai daude

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako Udalak etxebizitza bat eta bere garajea enkantera ateratzea erabaki zuen joan den azaroan egindako osoko bilkuran. Etxebizitza eta garajea Santa Kurtz kalean daude, Iturrigorri frontoiaren parean, berri-berriak dira eta 30 milioi eskasean atera dira enkantera.

ETXEA IKUSTEKO AUKERA

Udalak egun bi eman ditu etxea eta garajea ikusteko. Bata abenduan izan zen, eta bestea, urtarrilaren 3a izango da, 09:00etatik 11:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara. Ikusteko interesa duen guztia etxebizitzara bertara joan behar da, Santa Kurtz kaleko 22-B atarteko 1. D-ra, eta lasaitasun osoz ikusi ahal izango du 108 m^2 dituen etxea. Jarritako eguna errespetatu beharko da, eta ordutegiz kanpo doanari ez diote erakutsiko.

Enkantea arautzen duten oinarriak, bestalde, abenduaren 13an kaleratutako GAOn agertzen dira, eta Udaletxean bertan ere eskura daitezke.

INTERES HANDIA SORTU DUEN ENKANTEA

Interes handia piztu du enkanteak herrian. Batetik, etxe falta dagoelako eta bestetik, enkantera atera den prezioa, hogeita hamar milioi eskas BEZ barne, ez delako garestiegia. Udaleko idazkariaren esanetan, jende ugari hurreratu da Udaletxera etxebizitzaren inguruan galdezka.

Interesatuek urtarrilaren 8ra arte izango dute aukera diru eskaintza egiteko. Horretarako, Udaletxean egongo diren gutun-azalak hartu behar dituzte. Diru eskaintzarekin batera datu pertsonalak adierazi behar dira, gero, berriro Udalari itzultzeko. Epea pasatu ostean, gutun-azalak zabaldu eta gehien eskaini duenari salduko dizkiote etxebizitza eta garajea. Gero, Udalak 30 milioiren %2 fidantza gisa uzteko eskatuko dio erosleari.

Zertzelada

Interesatuek urtarrilaren 8ra arte izango dute aukera diru eskaintza egiteko. Horretarako, Udaletxean egongo diren gutun-azalak hartu behar dituzte.

ARRASATE IZOTZAK ERAGINDAKO ARAZOAK

Izotzak sekula baino arazo gehiago eragin ditu Arrasaten

Azken hogeita hamar urteotako egoerarik larriena bizi izan dugu

UBANE MADERA

Egun hauetan egin duen hotz handiak arazo ugari eragin ditu. Eguaztena izan zen egunik txarrena; Udalean 20 dei baino gehiago jaso zituzten goizean.

Iturriekin hasi ziren arazoak, izoztu egin ziren-eta. Gero, ur hodiak hasi ziren izozten eta ur kontagailuak apurtzen.

German Gutiérrezek, Udaleko Ur Zerbitzuaren arduradunak adierazi digunez, ehun dei baino gehiago jaso ditu Udalak azken astean. Egunik txarrena oraingo asteko eguaztena izan da; goizean bakarrik, 20 dei inguru jaso zituzten.

Ur Zerbitzuaren arduradunak azpimarratu duenez, "30 urte daramatzat lan honetan eta sekula ez da horrelakorik gertatu; hotz handia egin duen egunen bat edo beste izan dugu, jakina, baina ez horrenbeste arazorekin".

Are gehiago, eguaztenean, itxi egin zituzten herriko iturririk gehienak: "Adibidez, ospitalekoa lau bider konpondu behar izan dugu (gauez berriro ere izoztu egiten zen-eta); eta azkenean erabaki dugu, alferrik konpontzen ibili beharrean, iturriak ixtea izango dela onena".

IKER BARANDIARAN

Errekastoren bat eta ur geldiak ere izoztu dira egun hauetan Mondragoen.

Gainera, ur hodiak eta ur kontagailuak apurtzearen ondorioz, ura kalera irten da eta leku askotan izoztu egin da; eta hori zapaltzean, herritar batek baino gehiagok labaindu eta kolpea hartu du.

GOMENDIOAK

Udaleko Ur Zerbitzuak ematen duen gomendioa da ur hodiak aire librean izanez gero, isolatzaileren batekin babestea, bai eta ur kontagailuak ere. Eta, bestela, ur txorroa gauez apurtxo bat irekita uztea, noizean behin tantaren bat jausten; modu horretan, hodiak ez dira izoztuko.

LEINTZ GATZAGA

Gatzagako bizimodua eta gatzagarren ohiturak jasotzen

AINTZANE GARDOKI

Gatzagarrek, Olentzero alboan zutela, trikitiaren soinuarekin goizean goizetik hasi zuten eguna. Olentzerok herriko umeak batu zituen 09:30ean eta baserriz baserri ibili ziren eguerdira arte kantari. Eguerdian, denok elkarrekin bazkaldu eta indarrak hartu ondoren, berriro ilunabarrera arte herriko etxe guztiak bisitatu zituzten.

Baina aurten bazen gatzagarren artean herrikoa ez zenik ere; izan ere, goiza aurrera zihoala, Joxerra Agirreurreta alkateak kantarien artean argazkilari bat eta Juan Martin Elexpuru idazle uberarra aurkeztu zituen: "Bi pertsonaia hauek datozen zazpi edo zortzi hilabeteotan gure artean izango ditugu; argazkilariak iruditan jasoko ditu gure herriko eta gure herritarren bizimodua eta ohiturak, eta idazleak, berriz, argazki horiek laguntzeko, letrak ipiniko ditu", gehitu zuen alkateak. Hortaz, herritarrekin askotan izango dira bata zein bestea aurrerantzean.

ESKORIATZA UDALETXEA BERRIZTEKO LANAK

Udaleko zerbitzuak, berriro zabalik

Urtarrilean hasiko dituzte Udaletxeko lanak

AINTZANE GARDOKI

Urtarrilean hasiko dituzte Udaletxea berritzeko lanak. Horren ardura Bilboko Urasa enpresak izango du, eta bederatzi hilabete izango ditu lanok egiteko.

Udaletxea egiteko aurrekontua ia 170 milioi pezetakoa izango da. Udaletxea bota eta guztiz berrituko dute. Udaletxe berriak lau solairu izango ditu.

Joan den astean, bulego zaharrak utzi eta lekuz aldatu ziren langile guztiak.

Lanak amaitu bitartean, Udaleko zerbitzu guztiak lehengo autoeskola zaharreko bulegoetan izango dira, hau da, Jose Arana kaleko 13an.

AINTZANE GARDOKI

Udalak autoeskola zaharrean izango ditu bulegoak.

Zabalik



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Iñuxente babalora!

Aurreneko asmoa *Iñuxente babalora* arrasatear esaera zaharrari buelta pare bat ematea izan dut, antzinako ohiturekin batera galtzen doazkigun baloreen oroitzapenari eutsi nahian, nonbait. Baina, itxuraz, teklatuan diharduten hatzak eta burmuina uhin-koordenada desberdinetan bide ditut eta haiek ez diete jarraitzen azkenak bidalitako aginduei. Baztertu behar izan dut, beraz, ideia hori eta esparru diferenteetara sartu naiz.

Adituek diotenez, literatura sortzen ibiltzen garenoi, hizkiak lerroka ipintzeaz gain, txukun aritzea dagokigu, irakurri behar duena asper ez dakigun. Betekizun horrekin konplitzea aski konplikatua bilakatzen zaigu eguneroko jardunean, idazleak bere sentimenduak azaldu behar baititu, gezurrezkoak nahiz egiazkoak izan. Eta ariketa horretan gure susmoak, harridurak, umorea, igarpenak, tristura eta miseriak islatu behar ditugu. Autobiluzketa horren aurrean, zuhurtasun pixka batekin jokatu behar da, gutxien uste dugunean harrika ez gaitzaten. Norbaitek esaten zuen, "neu naiz nire liburuen materia". Egia esan, giza-espezieaz idatzi ahal izateko -eta idazten dugunean gizakia dugu helburu beti-, abiapuntu horretatik ekin behar zaio asmoari, ahaleginean labain ez gaitezen. Idazleak ezin dio gizakiari bizkarra eman, inbidia, poztasuna, askatasunaren antsia, nagikeria, egoskorkeria, maitasuna, gorrotoa eta gainerakoak gizon-emakumeen berezko jantzi izpiritualak baitira. Eta gurekin iraungo dute, geure izanari itsatsita.

Aizue! Badakizue gauza bat? Iñuxenteen egun honetarako nire ekarpen txiki hau aurrera daramadan neurrian, emaitza irakurlearentzako iñuxentekeria galanta ez ote zaidan bihurtzen ari itaundu diot neure buruari eta, kalean norbaitek harrika har ez nazan, badaezpada ere, hementxe bertan uzten dut gaurko saioa. Hori bai, honaino heldu den irakurlearri nire desiorik onenak opa nahi dizkiot urte berrirako. Eta eutsi goiari!

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Maite zaitut, baina MS Word formatuan

Je t'aime, mais non plus, esaten zuten duela urte batzuk Parisko neska-mutil modernoek. Gaur egungo neska-mutil euskaldun modernoek esaten ahal dute "maite zaitut, baina Microsoft Word formatuan". Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa 10. ediziora iritsi da, eta aurten, gutunok e-postaz ere bidaltzeko aukera dago. Hori bai, oinarriek zehazten dutenez, Microsoft Word formatuan. Ze disparate. Potoloak okurritzen zaizkit esateko, eta esan egingo ditut.

Izango ez da ba Bill Gates munduko pertsonarik aberatsena? E-postaz parte hartzekotan lehiaketa honetan, Word behar duzu instalatuta eta hori soilik lor daiteke Microsoften lizentzia bat ordainduta (norberak, edo norberaren bulego/enpresa/eskolak ordainduta) edo lapurtutako software ilegala erabiliz. Bill Gatesi Word programaren kopia hori 0 pta kostatu zaio, eta aldiz, Word programaren kopia hori zeure ordenadorean izatea akaso zure enpresari 50.000 pta kostatu zaio (Office paketea kosta daitekeena, beharbada).

Zertarako kexatzen naiz... Ezinezkoa da Microsoft Word ebitatzea. Hiru parrafoko galdetegi bat bidali didate gaur, adibidez. Zer kostatuko zen testua mezuaren gorputzean kopiatzea... baina ez! Word dokumentu bat bidali didate sei lerro putagatik. Bueno, nik badaukat Word nire ordenadorean. Zehazki Word 6.1 bertsio bat, lapurtutakoa portzierto. Baina hara, nire Word honek ezin ditu ireki Word bertsio aurreratuagoak. Eta Microsoftek bertsioa berritzen du bi urtetik behin, eta jendeak gero eta bertsio berriagoekin bidaltzen dizkizu gauzak, zuk ere amore eman dezazun eta Word berria erosten amai dezazun...

Funtsean, arazoa zera da, ekuazio hau sinestera iritsi garela: testu idatzia=MS Word. Idatzi bat prestatu du norbaitek, bidaltzeko eskatzen diozu, eta zer bidaltzen dizu: Word dokumentu bat. Jai programa ez dakit non, eskatzen diezu, zer bidaltzen dizute? Word dokumentu bat...

Esan bezala, honek ondorio ekonomikoak ditu, besteak beste: Word bertsio berrietan etortzen badira dokumentuak, ezin bertsio zaharrekin ireki. Berriz duela bi urte erosi genuena (Word edo Office) berrerosi behar dugu, jendeak Word puta horiek bidaltzen dizkigulako.

Dijitalizazioaren garaian ere, batzuk pentsa dezakete testua Word dokumentuetan gordeta izateak ordenadoreetan iraupenerako garantia dela. Alderantziz: Wordean idatzita dagoena gauzak Internetera edo beste formatu elektroniko batzuetara pasatzeko sekulako lanak hartu behar dira.

Pasaidazue liburu bat Word-en Interneten publikatzeko... puff, badago hor ordu mordoxka baterako lana. Pasaidazue testu huts gisa, eta di-da egingo dizut. Ondorio ekonomikoak baino larriagoak dira, hala ere, kontzeptualak testua=Word ekuazioa egia dela sinestea. Gaur da eguna non batzuek ezin dute Word gabe ezer idatzi edo konposatu. Amodiozko gutunik ere ezin idatzi, horrela ez bada. Analfabetismoaren antipodetara iritsi gara, hiperalfabetismoa. *Eske testua kopiatu eta pegatzen badut, negritak eta aukeratutako letrak galtzen dira, ez da ikusten logotipoa, taulak ez zaizkit ondo ikusten.* Eta diot nik: eta zer? Cervantesek eta Shakespearek ascii hutsean idatzi zuten. Ez zeukaten formatu beharrik. Jaunaren hitzak ere, Bibliak, ez du berez behar formaturik, ez sangraturik, ez negritarik ez kristorik: ascii edo testu hutsa da Jainkoak bere hitza idatziz transmititzeko behar duen gauza bakarra. Hitza transmititzeko behar duguna 28 letra dira. Ez beste ezer. "Maite zaitut" idazteko zer gehiago behar dugu?

Hitza askatu dezagun, ez dezagun Word formatuaren tiraniara kondenatu. Amen.

LUIS FERNANDEZ
Eibar

Aurten ere ez gaude denok

Gabonetan gaude, eta aurten ere euskal presoak ez daude gure artean. Kepa herriko seme eta laguna Galizian dago, gugandik 763 kilometrora. Urte luze hauetan, senideek 792.000 kilometro eta 11.788.000 pezetako gastua egitera behartuak egon dira. Egoera ikusirik, urtero bezala, gabonak direla aprobetxatuz, makina bat ekintza egingo dira herrian. Besteak beste, kalean txistorra postuak jarriko dira eta materiala erosteko ere aukerarik izango da. Beraz, guztion artean badugu laguntzerik, ez da eta gutxiagorako sufritzen duten egoera.

2002. urte honen atarian, egoerak ez du batere aldatu. Euskal preso politikoek sufritzen dituzten ondorio psikologiko, fisiko eta ekonomikoak ez dira nolanahikoak. Guztion laguntza eta elkartasuna ezinbestekoa da egoera hau salatzeko!

ASKATASUNA
Aretxabaleta

Datorren astean GOIENKARIArik ez

Gabonak direla eta, oporrak hartuko ditugu datorren astean. Hortaz, datorren egubakoitzean ez dituzu jasoko ez GOIENKARIArik ezta herrietako aldizkaririk ere ez. Urtarrilaren 11n, indarberrituta itzuliko gara berriro ere. Ordura arte, disfrutatu urte amaierako zenbaki berezi honekin eta urte berri on!ezinbestekoa da egoera hau salatzeko!

GOIENKARIA

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Urte berria dela eta, orain arte egin ez ditudan gauza piloa egin behar ditut: formaldu egin behar naiz; ingeles ikastaroan izena eman behar dut; dantzan egiten ikasi behar dut; argaltzeko helburuarekin gimnasioan emango dut izena; erretzeari lagako diot... Ai, ene! Urte berria dela eta, makina bat gauza berri egiteko itxaropena azaltzen dugu, baina gero, ezer ez da aldatzen, betikoak izaten jarraitzen dugu. Sasoia honetan, baina, amets ugari izaten ditugu. Aintzat hartzen dugu, baina, *urte berri, bizi berri* hori?

Urte berri, bizi berri... Ados zaude esaera honekin?

Gabonetako urteroko ipuinaren ohiko osagaiak

BEÑARDO KORTABARRIA
Kazetaria

Andoni Egaña, hau da gaia: "Aduerretik Ebrora bada bizi nahi duen herri bat, belodromoa..." hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.

Beñar Kortabarria, hau da gaia: "Urte berri, bizi berri?" 1.900 karaktere.

Gaia entzutean Egañak Anoetako belodromoko oholtzaren gainean jarri zuen aurpegiak eta telefonoz gaia eman zidatenean nik jarri nuena ez ziren oso desberdinak izango. Erabiliegiak gai biak, tarte handirik uzten ez duten horietakoak. Zer egingo zaio ba! Behin oholtzara igoaz gero, ezin atzera egin.

Bestela izatea nahi nuke, baina aitortu behar dut gaia-jartzailearen galderari ezezkoa eman behar diodala. Egun hauetako zorion eta bake-desioak, etorkizunerako elkartasun eta itxaropen-agur eta keinuak, datozen 365 egunetarako gogo eta asmoak, Gabonetako urteroko ipuinaren ohiko osagaiak dira, besterik ez. Gizateriaren historia horren lekuko. Horretaz ohartzeko ez dago Santimamiñeko gizakien garairaino joan beharrik. Atzera egin dezagun denboran, 25, 10, 5 edo urtebete. Begira diezaiogun geure buruari, geure inguru hurbilari, etxekonari, urrutikoari eta bizi garen mundu honi. Non geratu dira urteroko promesak? Ametsak? Itxaropenak? Ez dute amerikarrek mundua euren erara moldatzen jarraitzen? Eta gainontzekoek ez dute Amen egiten jarraitzen? Euskal Herriko gatazkan zer aldatu da? Langabezian dagoen etxekonari egun onez gain, beste zerbait eskaini diozu? Elkartasun-keinurik?... Sasoi honetako giroak, neurri batean, hauteskunde-kanpainak gogorarazten dizkit: "Hau, bestea, ondokoa eta zera egingo dugu..." eta oraindik Antzuolan ez daukagu mutikotan agindu ziguten pizinarik.

Ipuina bizi izatea, hala ere, ez da guztiz txarra. Entretenitu egiten gaitu bolada batean, eta nahi genituzkeen giza moldea eta gizartea irudikatzen uzten dizkigu. Argi dagoenez, errealitatea ezin da eskuratu aurrez irudikatzen ez bada. Bien bitartean, goizeroko dutxapean Amurizaren bertso hauek kanta itzazue: *...argitu ezak kopeta / penak euretzat gordeta, / goizero sortuz bizitza ere / hortxe zegok eta!*

Ondo bizi!

"Sasoi honetako giroak, neurri batean, hauteskunde-kanpainak gogorarazten dizkit"

Memoriaren artxiboetan arakatzen

DIEGO MARTIARTU
Kazetaria

Urtearen azken hondarretan, gabonetako arbolatxoaren ondoan jarrita, sarritan egiten dut atzera begiradatxoa. Gertaera, pasadizo, irudi, lagun zahar eta bestelako kontuak memoriaren artxiboetan sailkatuaz eraikitzen dut nire historia subjektiboa. Memorian gorde gura ez ditudan dokumentuak ezabatu egiten ditut eta kito, agur Ben Hur. Ba memoriaren artxiboetan arakatzen ibili naiz gabonetako zuhaitzaren argitxoen diz-dizaren konpainian, eta, zinez diotsut, umea Olentzerok ekarritako opariak zabaltzean nola, halaxe ibili naiz ene memoriaren oroitzapen bizarro edo bulartsuak gogora ekartzen (bide batez, galdetu gura nioke Txipi Ormaetxeari ea gaztelaniazko bizarro berba euskarazko bizar-etik datorren...).

Oroitzapen bulartsuek ez dute ene historia pertsonalean -ezta unibertsalean ere- ohorezko lekurik hartzen; ez; gorago esan bezala, marjinal xamarrak izan ohi dira, aski grixak, lausoak. Hala ere, niri behintzat, sekulako grazia egiten didate eta gogora ekartzen ditudanero irribarre maltzur batek irteten dit ezpainetara. Esaterako, ez didazue esango Hernández Mancha PPko lehendakarigaiak ez duela zuen bihotzean arrastorik utzi... Gogoratu zaitezte bestela Kepa Aulestiarekin, Biltzar Ttipiekin, Ezker Tokiekin... Euskadiko Ezkerrarekin lotura duen den-dena da bizarroa, bulartsua. Edo "Verano Azul" telesaileko Kike grixa... edo Xabier Gereñoren liburu poliziako gogoangarri haiek: Xantaia Kontesari, Mitxino katua pozoiez hila... edo nola ibiltzen ginen lehen ikastolakumeak ingurrastiak gora eta axotak behera... edo *Extra* izparringia bera... edo Ixmael Lejarreta handia, beti Marinoren gerizpean... edo Rubik-en kuboa... edo Euroak irentsi zuen Ecu-a... ETB-ko *Txiskola* saio freskagarria... Raimund Dietzen...

Bildu zaitez zure etxeko besaulki erosoenera, ontzia bete txokolate bero-bero esku artean, eta ekiozu zure memoria bulartsua arakatzeari. Lagungarri izango zaizu zeure burua biziberritzeko. Aurten ez daukat Olentzero ikusteko ilusiorik, bai ordea Txoronpio eta Txoronpia. Doluminak eta urte berri on.

KONIEK

"Aurten ez daukat Olentzero ikusteko ilusiorik, bai ordea Txoronpio eta Txoronpia"

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Euroa dela eta, prezioak borobiltzeari buruz zer iritzi daukazu?

Gora eta Behera

BOLUNTARIOAK

Bizitzako zati bat, borondatez eta behartuta izan barik, besteen hoberako laguntza ematen dutenak. Batez ere, Gabonetako jaiegunak inguratzean, negu gogorra nabaritzean, hainbat laguntza eskaintzen dutenak: errepideetan laguntzen, lagun asko euren etxeetara ondo iristeko; kale gorrian, inora joateko ez daukatenei, txokolate beroa eskaintzen...

BOLUNTARISMOAREN AURKA DAUDENAK

Borondatezko lana egitearren, etekin ekonomikoa atera nahi dutenak; norberaren denbora gehiegi baloratu eta besteendako denborarik ez dutela pentsatzen dutenak; borondatez egin beharreko lanak ordaindu beharrekoak bihurtu nahi dutenak...

MARIAN ELKORO
Elgetako Udaleko Idazkaria

Koplak

Urte berri on!

Batzuentzat txarra, besteentzat ona
beste batzuentzat errena,
kontuak kontu bukatu zaigu
bi mila ta batgarrena.

Gabon hauetan Olentzero ere
heldu da borondateko,
egun bikainak turroia janaz
balantzea egiteko.

Urte batzuk dauzkagunontzat
bada nahiko komeria,
hotzaren hotzez haginak ere
lokartu zaizkigu ia.

Euroak dantzan jarri dituzte
urtea baino lehenago,
diru pixka bat duenak badu
buruhauste bat gehiago.

Nere ustetan askoz hobeto
pasatzen zen Gabonetan,
Txantxikunean pazientziak
saltzen zituzten urtetan.

Urtaro hau hartzen dugunon
topikoa alegia,
ondo bukatu urte zaharra
ta hobeto hasi berria.

KOLDO ALBERDI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK Goio Arana (Diseinua) Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Antonio Cancelo

MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVAKO LEHENDAKARI OIHA

“Enplegua eta aberastasuna sortu duten enpresak sortzen eta garatzen lagundu dudala uste dut, beste hainbaten laguntzaz, jakina”

Euskal Herriko enpresa talde nagusiko presidentea izan da azken sei urteotan. Antonio Cancelok (Puebla de Sanabria, 1936) oraingo astean hartu du erretiroa, Natibitate egunean bete zituen-eta 65 urte. Gaztetan etorri zen Euskal Herrira, Eibarrera, hain zuzen. Azken hiru hamarkadaetan, ostera, kooperatiben munduan ibili da buru-belarri.

ENEKO AZKARATE

Valladolideko herri txiki batetik herri industrializatu batera etorri zinen familiarekin, 24 urte zenituela...

Bai, aita praktikantea nuen eta etorkizun handiagoko beste leku batera lanera joateko animatu nuen. Hala etorri ziren gurasoak Eibarrera. Ni geroago etorri nintzen, artean, lanean nenbilen-eta. Eibarrera 1961ean etorri nintzen. Osasun Laguntzaile Tekniko ikasketak eginak nituen. Eta zaila egin zitzaidan lana topatzea. Azkenean, Hijos de Balenciaga fabrikan hartu ninduten. Kudeaketa Kontrolean hasi nintzen. Geroago, baina, Alfan hasi nintzen lanean, nire lanean, OLT moduan, alegia. Ordurako jabetu nintzen bezeroaren garrantziaz. Oso argi neukan garrantzitsuena jendea pozik edukitzea zela, eta, ordu txikietan izanda ere, premia zutenak zaindu behar nituela.

Noiz hasi zinen kooperatiben munduan?

1967an. Ezkonduta eta bi seme-alabak jaiota, Joan XXXIII.a kontsumo kooperatiba sortu berritik deitu zidaten, ea enpresaren kudeaketaz arduratuko nintzatekeen. Baietz erantzun nien. Egia esan, nik ez nekien zelan kudeatzen zen enpresa bat, ekonomiaz, marketingaz ez nekien ia ezer, baina behin eta berriro eskatu zidaten kargua hartzeko. Batez ere, zintzotasunaren balioa azpimarratu gura zutela esan zidaten. Onartu egin nuen kargua... lan berrian gutxiago irabazi arren.

Eibarko enpresa hura ez zen, baina, Mondragoeko kooperatiben taldekoa.

Ez. Oraindik orain, hitzaldi baten zera ekarri dut gogora, hain justu, Jose Maria Arizmendiarrietarekin izan nuen lehen hartu-emana eztabaidatzeko izan zela, eta ez bat etortzeko. Jose Antonio Mendikuteri enpresa bat erosi genion. Enpresa horri gure printzipioak, gure egiteko moduak, ezarri gura izan genizkion. Enpresa zelan egituratu pentsatzen ari ginela, Jose Maria Arizmendiarrietarengana joan ginen, laguntza eske. Harekin batzartu ostean, ondorio honetara heldu ginen: “Hauek burgesegiak eta kontserbadoreegiak dira”. Horregatik, erabaki genuen Mondragoeko eredua ez jarraitzea. Azkenean, honako oinarri edo printzipio hau jarraituz osatu genuen enpresa: bakoitzak ahal zuen neurrian emango zuen, eta premien arabera jasoko zuen. Jakina, hilabete gutxira konturatu ginen jende guztiak behar edo premia ugari zituela, baina, ostera, oso gutxi zuela jartzeko edo emateko. Begi-bistakoa zen horrela ezin genuela jarraitu, eta atzera egin genuen. Ohartu ginen arrazoi zutela Mondragoeko kooperatibek... eta gure enpresa kooperatiba bihurtu genuen.

Noiz sartu zen Antonio Cancelo Mondragoeko kooperatiben taldean?

Joan XXXIII.a kontsumo kooperatibaren kudeatzaile postua onartu nuenean, 1967an, nire kezka zen kooperatiba bakarrak, hau da, beste kooperatiba enpresekin harremanik ez zuenak, ez zeukala etorkizunik. Hortaz, gurea moduko beste kontsumo kooperatibekin elkartzen hasi ginen, Europako beste eredu batzuk aztertu genituen... eta, azkenean, proiektu bat egin genuen, geroago, Eroski izango zenaren oinarria. Eroski 1969an jaio zen. Hortaz, esan daiteke ordutik hona ibili naizela Mondragoeko kooperatiben taldean lanean. 1990ean, berriz, Eroski taldea sortu genuen.

Sei urtez MCCko buru izan ondoren, erretiratzea egokitu zaizu. Zelan hartzen du Antonio Cancelok aro berri hau?

Lasaitasun handiz. Ustekabean hartu zaitzake aurrez ikusi ez den ekaitzak, baina erretiroa 65 urte betetzen dituzunean heltzen zaizula jakinekoa da. Hortaz, alde batetik, soseguz eta, bestetik, ilusio handiz ekingo diot bizitza berriari. Ez diot beldurrik erretiroari, gauza asko ditudalako irabazteko. Horietako bat, askatasuna.

Aurrerantzean MCCri lotuta jarraituko duzu?

Ez. Erakunde baten horrenbeste urtez lanean ibili zarenean eta erretiratzeko ordua heldu zaizunean, behin betiko erretiratu behar zara. Ez zait zilegi iruditzen etengabe zirikatzen ibiltzea. Errespetua izan behar zaie zure ordezkoei. Hala ere, argi esan gura dut egunen baten zerbaitetarako deitzen badidate, laguntzeko prest aurkituko nautela. Hau nire etxea izan da.

Zer egingo duzu hemendik aurrera?

Garapen bideak eskaintzeko laguntza emango diot herri honi. Hortaz, erakunde batzuekin konpromiso batzuk hartuko ditut eta nire astiaren zati bat erakunde horiei laguntzeari emango diot. Eskaintza batzuk jaso ditut, baina oraindik ez dut erabaki zehatzik hartu. Hori bai, ardura kargurik ez dut hartuko. Ez dut erabakirik hartu gura, erabakiak hartzen lagundu baizik. Gizarte ekonomiaren alorrean lagundu gura dut. Bestalde, bidaiatzea asko gustatu izan zait beti eta horri ere eskainiko diot astia. Jendearekin egon, entzun, beste bizitza modu batzuk ikusi... Horiek egin gura ditut. Eta, horrez gain, familiarekin, hau da, emaztearekin eta seme-alabekin gehiago egon gura dut... Eta hitzaldiak egin gura

ERRETIROA

“Ustekabean hartu zaitzake aurrez ikusi ez den ekaitzak, baina erretiroa 65 urte betetzen dituzunean heltzen zaizula jakinekoa da”

GAUZA ASKO EGITEKO

“Jendearekin egon, entzun, beste bizitza modu batzuk ikusi... Horiek egin gura ditut. Eta, horrez gain, familiarekin egon gura dut... eta hitzaldiak egin, eta liburu bat idatzi...

INDUSTRIA ERALDAKETA

“Lanpostu bat beste lanpostu baten truke defenditzen jarraitzen dugu eta ez lanpostu bat lanpostu askoren truke. Badirudi ez dugula ikasi...”

LANGILEAK

“Enpresa batek arrakasta izan dezan, enpresa horretako langileak izan behar dute euren lanaren eta egiten dutenaren arrakasta eta porrotaren ardura osoa”

ENEKO AZKARATE

ditut; horri ere eskainiko diot astia... Eta liburu bat idatzi gura dut...

Zerbaitegatik zaude bereziki harro?

Beharbada, arraroa egingo zaizu, baina pertsonek, lankideek, eskaini didaten maitasunarengatik, adiskidetasunarengatik. Horixe da garrantzitsuena niretako. Zeren ekonomia kontuetan sekulakoak lortu izan banitu, baina jendea nirekin gustura egon ez balitz, ez nintzatekeen pozik egongo. Pertsona askeen taldeak sortzen saiatu naiz beti, eta nire ingurukoak gustura egon zitezen ahalegindu naiz. Hori guztia errealitate ekonomiko bihurtzea beharrezkoa izan da, baina lehenbizi lanean gustura sentitzea oso garrantzitsua izan da. Bestalde, adiskidetasuna, nire lankideengandik ez ezik, beste hainbat esparrutik ere heldu zait.

Lanetik kanpo, zeintzuk dira zure zaletasun nagusiak?

Pare bat orduz paseatzea asko gustatzen zait. Sormena lantzeko oso modu egokia da ibiltzea. Ideia onenak lantokitik kanpo izan ditut: paseatzen, lorategiko belarra mozten... Bestalde, irakurtzea ere asko gustatzen zait. Denetik eta asko irakurtzen dut. Horrez gain, eta akaso publiko egitea lotsa apur bat ere ematen dit, baina kirola telebistatik ikustea asko gustatzen zait. Oso apasionatua naiz, gainera. Futbola, pilota, saskibaloia, eskubaloia... asko gustatzen zaizkit. Orain dela urte batzuetara arte, futbitoan jokatzen ibili naiz. Ez naiz oso teknikoa izan, baina bai, ordea, sutsua.

Zer eman dio Antonio Cancelok Euskal Herriari eta zer Euskal Herriak Antonio Cancelori?

Euskal Herriak niri, batez ere, harrera, laguntasuna, garapen pertsonalerako aukerak... eman dizkit. Hemen hazi naiz. Eta, trukean, nik Euskal Herriari zer eman diodan? Bada, eman nezakeen guztia, eta nire lanarekin herri honen aurrerapenean lagundu dudala esango nuke. Bereziki, enplegua eta aberastasuna sortu duten enpresak sortzen eta garatzen lagundu dudala uste dut, beste hainbaten laguntzarekin, jakina.

Azken 40 urte hauetan gauza asko gertatu dira Euskal Herrian. Zer gertakari nabarmenduko zenuke?

Nire lanarekin lotutako zer edo zer, hau da, ekonomiaren arloko zer edo zer nabarmentzearren, herrialde honetan egin zen industria eraldaketa azpimarratuko nuke. Zaila izan zen, gizarteak errefusatzen zituen erabaki garrantzitsuak hartu behar izan zirelako. Arazoari gordintasun osoz ez balitzaio aurre egingo, herri honek ez luke berriro ere garapeneko eta aberastasuneko bidea hartuko. Halako erabaki garrantzitsuak hartu zituzten guztiek dute nire miresmen osoa. Hala eta guztiz ere, uste dut ez dugula ikasi: lanpostu bat beste lanpostu baten truke defenditzen jarraitzen dugu eta ez lanpostu bat lanpostu askoren truke. Norberaren arazoen gainetik herri baten garapena eta etorkizuna jarri behar ditugu. Jakina, lanpostu bat galtzen duenari aterabideak aurkitu behar zaizkio... Erabaki guztiek daukate bere alde ona eta txarra.

MCC enpresa taldearen kudeaketa modua eredu da munduan eta ez du, gainera, parekorik. Zein da arrakasta horren gakoa?

Hiru azpimarratuko nituzke: lehenbizi, pertsonek gure enpresetan duten garrantzia. Nire ustez, enpresa batek arrakasta izan dezan, enpresa horretako langileek izan behar dute beren lanaren eta egiten dutenaren arrakasta eta porrotaren ardura osoa. Hori horrela ez bada, erdipurdiko enpresa bat izango da. MCCn, pertsona, hau da, langilea, izan da garrantzitsuena eta kapitalak, berriz, bigarren mailako garrantzia izan du. Bestalde, bizi dugun errealitatera etengabe egokitzeko gaitasuna izan du MCCk eta hori ere azpimarratzekoa da. Azkenik, idealismoaren eta pragmatismoaren arteko orekari uneoro eutsi diogula ere azpimarratuko nuke. Ideologia nagusi izan behar bada ere, ekonomiarekin orekan jardun behar du.

ENEKO AZKARATE

"Europazalea naiz eta pozik nago euroaren etorrerarekin"

Karguagatik munduko pertsona asko ezagutzeko aukera izan duzu. Zein nabarmenduko zenuke?

Jose Maria Arizmendiarrietak txunditu ninduen, batez ere, gizon koherentea izan zelako, pentsatzen zuena egiten zuelako. Gero, gauzak aldatzeko izan zuen gaitasuna ere azpimarratuko nuke. Teoria bikainak idazten dituztenak asko dira; gutxiago, ordea, indarrean jartzeko gauza direnak.

Politikarekiko interesik baduzu?

Alderdi politikoak ez zaizkit interesatzen, baina herritar bat naiz eta politikoek hartzen dituzten erabakiek eragina dute nigan.

Biolentziak zelako eragina dauka gure gizartean eta ekonomian?

Bost axola ekonomia ondo doan edo ez doan, herritarren artean ados ipintzeko gauza ez bagara. Lehenbizi, aske bizi nahi dut. Jakina, pertsonen arteko elkarbizitzan biolentziak daukan eraginak kezkatzen nau. Aberats, zertarako? herritarrak aurrez aurre ikusi ezinik badaude.

Eurorako ondo gertatuta gaude?

MCC bai. Baina uste dut herritarroi kostatu egingo zaigula eurora egokitzea. Edozelan ere, baikorra naiz eta Europaren eraikuntzaren beste urrats bat da euroa. Europazalea naiz eta, alde horretatik, pozik nago.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Ubera eta Laskurain, txapeldun

DV Txapelketako finala irabazi zieten, erraz, Agestari eta Argoteri (22-8)

Xabier Uberak eta Haritz Laskurainek DV Txapelketa irabazi zuten zapatuan, Tolosan, Agesta-Argote bikoteari 22-8 nagusituta. Amateur mailako pilotaririk onenak batu ditu DV Txapelketaren X. ekitaldiak.

OXEL EROSTARBE

Xabier Ubera eta Haritz Laskurain bikoteak DV Txapelketa eskuratu zuen zapatuan Beotibar pilotalekuan.

Xabier Ubera elgetarrak iazko ekitaldiko finala galdu zuen Eulaterekin batera. Oraingoan, berriz, ez zuen hutsik egin eta berak eta Laskurainek uste baino errazago eskuratu zuten garaipena. Tolosako Beotibar pilotalekua jendez gainezka zegoela, partidu biribila egin zuten Xabierrek eta Haritzek. Aurretik izan ziren partidu osoan, eta horrek konfiantza eman zien euren jokorik onena azaltzeko. Partidua hasi eta berehala, zortzi tantoko aldea lortu zuten (8-0). Uberak primeran errematatu zuen, eta txokora egindako dejada bat eta bi paretako bat partiduko onenetakoak izan ziren.

Uberak eta Laskurainek arazo barik eutsi zioten aldeari, eta 58. minutuan irabazi zuten. Guztira, 505 pilotakada eman zituzten lau pilotariek. Partidua atzeko koadroetan erabaki zen. Laskurain soraluzetarra bikain ibili zen eta, hala, partidua bukatu ondoren, pilotari onenaren saria jaso zuen.

Bestalde, Uberak adierazi zuenez, "hau da beti irabazi nahi izan dudan txapela". Ametsa egi bihurtu da, hortaz. Txapeldunek euren gurasoei eskaini zieten garaipena.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

PILOTA/URIBARREN

Mikel gasteiztarrarekin bikotea osatuz, Unai Uribarren pilotari aramaioarrak (27 urte) Arabako amateur mailako pilota txapelketa irabazi zuen domekan, Gereño eta Martínez bikoteari finalean 22 eta 21 irabazi eta gero. Ogeta pilotalekuan jokatutako partidua emozioz beteta egon zen, eta azkenean, Mikelek eta Unaik jantzi zuten txapela.

FUTBOLA/BERGARA

Gabonetako XI. gazte mailako futbol txapelketa jokatzen ari da Bergaran. Gaur, egubakoitza, Bergarak eta Aloña Mendik neurtuko dituzte indarrak, 17:00etan, Ipintzan. Atzo, Realaren eta Eibarren arteko partidua jokatzekoa zen. Finala astelehenean izango da, Agorrosinen, 16:00etan.

PILOTA/BERGARA

Martitzenean, urtarrilaren 1ean, pilota jaialdia izango da Bergaran, 17:00etan: lehenik, Tirapu-Peñagarikano eta Esain-Otxandorena bikoteak izango dira aurrez aurre; jarraian, Unanue-Beloki eta Olaizola II.a-Patxi Ruiz bikoteek neurtuko dituzte indarrak; eta Kokak eta Albizurik Berasaluze VIII.a eta Pinedoren aurka jokatuko dute. Txarteldegia 14:30ean zabalduko dute.

Zer irudituko litzaizuke

Debagoieneko eskualdeko herriek

urtean

12.411.007.122 pta

ordaintzea

HONAKO HAUEN MANTENURAKO?

84.889.285
ESPAINIAKO
ERREGE-ETXEA

1483.834.986
ESPAINIAKO
BARNE MINISTERIOA

2046.451.105
ESPAINIAKO
DEFENTSA MINISTERIOA

271.294.701
ESPAINIAKO
KANPO-HARREMANETARAKO
MINISTERIOA

bada, ordaintzen ari gara!

Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoa:

MORRONTZA EKONOMIKOA

batasuna

ARAOTZ Merenderua

Araotz merenderua

Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

Eskaintza
- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerrak

Berezitasunak
- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

Zorionak!

Eguenetik domekara zabalik

JATETXE GIDA

On egin!

Baster-Alde



Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Gabon zoriontsuak!

Egunero zabalik

Iturrieta sagardotegia

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

Eskaintza
- Etxeko sukaldaritza gozoa
- 100 lagunendako lekua

Berezitasunak
- Txuleta
- Etxeko sagardoa

Urte berri on!

Eguenetik domekara goizeko 10:00etatik aurrera zabalik

Kataide jatetxea

Kataide Poligonoa / ARRASATE
943 79 60 10

Eskaintza
- Menua
- Gosariak
- Pintxoak

Berezitasunak
- Plater konbinatuak

Jai zoriontsuak!

Goizeko 07:00etatik aurrera zabalik

Mitarte Garai

NEKAZAL TURISMOA

(Urkuluko urtegitik gertu)
Areantza auzoa / ARETXABALETA
943 79 17 51

Eskaintza
- Menua
- Karta
- Enkarguak

Berezitasunak
- Bildotsa
- Etxeko gazta, txorizoa eta ogia

Gabon zoriontsuak!

Astelehenetan itxita

Taberna-Berri jatetxea

Durana, 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada

Urte berri on!

Torrekua jatetxea

Ibargarai, 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Jai zoriontsuak!



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Zorionak!

Igandetan itxita

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 28tik urtarrilaren 4ra

Evaristo, gure garaiko kronikaria

Garai bakoitzeko kronikariek ez dute zertan kazetari, berriemaile edo idazle izan behar. Edonon aurki ditzakegu. Garaiko arazoak eta kezkak aintzakotzat hartu eta horien inguruan adierazteko dutena adierazten dute, musikaren, literaturaren edo beste edozein sorkuntza medioren bitartez. Batzuetan dotoretasuna dute gustuko; baina sarritan lau esaldi zorrotz eta gordinekin ederto erretratatzen dute bizitzen ari diren garaia.

Azken horietakoa dugu Evaristo. Etiketetatik ihes egiten du erdi oñatiar dugun aguraindar horrek: ez da "La Pollako Evaristo" punkia, nahiz eta horrela egin den ezagun; eta orain, liburu bat kaleratu berri duen arren, ez da "Evaristo idazlea". Badirudi ez duela bere burua definitzea gustuko Evaristok. Baina definizioetatik "eskakeoa" egiten duen gizon hori gehienondako da ezagun. Izan ere, La Polla taldearekin hamaika modu desberdinetan egin du gaurko gizartearen aurka protesta, maiz umore mingotsa eta sarkasmoa erabilita, baita amorrua ere. Jarduera horrekin aurrera jarraitzen du Evaristok; baina orain dela gutxi, munduaren inguruan esateko duena liburuan irakurtzeko aukera ere eman digu: *Por los hijos, lo que sea* istorio bilduma argitaratu berri du.

Urte dezente pasatu dira orduan La Polla Records izena zeukan talde hura sortu zuenetik hona, baina oraindik ere, agertokian, bere salaketak garrasi baten zabaltzen zituen gizon hark badu zer esana. Zerekin harrituko gaitu hurrengo? /14

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: IKOR KOTX

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

ELKARRIZKETA/ **EVARISTO, LA POLLAKOA... EDO EVARISTO, IDAZLEA**

EVARISTO

"Gehien aluzinatzen nauena da inozoek aginte postuak lortzeko duten gaitasuna"

La Polla punk-rock taldeko buru moduan ezagutu izan dugu orain arte Evaristo, agurain-darra sortzez eta oñatiarra adopzioz. Egunotan, ordea, beste sorkuntza mota batekin harritu gaitu Evaristok: *Por los hijos, lo que sea* istorio laburren liburua aurkeztu zuen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Seme-alabengatik, egin behar dena... Nondik dator izenburua?

Aguraingo hainbat jenderen txantxa berezi bat da, eta gure umeak, estra bezala-edo, agertzen dira hor nonbaiten.

Alde handia dago abesti bat edo istorio bat idaztearen artean?

Zein distantziara begiratzen dituzun arabera. Egia esan, ipuinetan buru dispertsio handiagoa dago; abestietan, gauza bakoitza hobeto pentsatua dago.

Zelan suertatu zitzaizun argitaratzeko aukera?

Istoriotxo batzuk Txalaparta argitaletxera bidali nituen, eta liburu bat egitea proposatu zidaten. Berehala konbentzitu ninduten.

Aurrerantzean, musikari ala idazle moduan ezagutuko dugu gehiago Evaristo?

Ni bataiatu ninduen apaizak ere ez nau ezagutzen, hortaz, La Pollako Evaristo izateagatik eta Evaristo idazlea izateagatik "eskakeatu" egingo naiz.

Punketik literaturara salto egite horrekin, bateren batek burges bihurtzen ari zarela pentsatuko duen beldur ez zara?

Horixe ez naizela beldur inork nitaz zer pentsatuko duen, poliziak izan ezik.

Etorkizunean, oraindik ezagutzen ez dizugun beste sorkuntza alderdi batekin harrituko gaituzu?

Ba, esango dizut... lanean hastea bururatzen ez bazait...

Konta iezaguzu orain *Bocas* diskoaren gaineko zer edo zer. La Pollaren ibilbidean aldaketarik badakar ala hemen eta Amerika aldean ospetsu egin zaituzten ildotik jarraitzen duzue?

La Pollak ezin du ildo aldaketarik izan, ez dakielako, ez daukagu horretarako behar den musika kultura.

Mexikon izugarrizko harrera ona izan du La Pollak, ezta?

Bueno, Mexikora behin joan ginen, uste dut 1990ean izan zela, eta oso-oso esperientzia ona izan zen. Orain ez dakit han ospearen kontua zelan dagoen.

Komunikabideekiko oso kritikoa zara. Ez diezu alde onik aurkitzen; adibidez, zure idazle alderdi hori ezagutzera emateko aukera?

Ba, ez, ez dut uste komunikabideek inongo mesederik egiten diotenik munduari. Nire ustez, komunikabideen zeregina hau da: boteretsuen ideiak pobreen buruetan indarrez sartzea. Aditu dudanez, bi banketxe talde handik (BBVA eta BSCH) Estatuko komunikabideak menderatzen dituzte, eta ez hori bakarrik, baita eragin handia duten iritzi emaile asko ere. Aditu dut, era berean, lekuko aldizkari asko dituztela nominan. Baina ez iezadazu jaramon handiegirik egin.

Zer iruditzen zaizkizu lekuko komunikabideak?

Lekuan lekukoak direnez, adi egon beharra dute, izan ere, egiten dituztenak irakurtzen dituztenekin bizi dira; hortaz, uste dut ez direla hain ideologizatuak izango.

Zeu ere leku txikietan bizi izan zara... Agurain edo Oñati gurago?

Aukeratu egin behar dut?

Esaten dutenez, Oñati oso herri kontserbatzailea da...

Ez dakit, nirekin ez da inor sartzen, kontserbatzaileak almibarrean bizi dira?

Esan iezaguzu zerbait zure letren gainean. Bururatu egiten zaizkizu, beste barik, ala buru-belarri lantzen dituzu?

Bietatik. Gainera, nire mutur aurrean gertatzen denari kasu handia egiten diot.

Badago zerbait munduan edo gizartean oraindik harritzen zaituenik?

Ume txikiek harritzen naute. Ez nago guztiarengatik bueltan, bizitzak ez nau aspertzen oraindik.

Eta badago kritikatzeko gogoarekin geratu zaren gai edo alderdiren bat?

Gairik ez, alderdiak, bai; izan ere, gure gizarte hau aurpegi gehiegi dituen munstroa da.

Nondik dator taldearen izena eta zergatik ezabatu zenuten "records"?

Taldearendako izen bila genbiltzanean, "mekaguen la polla" sarri esaten genuen, eta kasete zintetan "Records" ipintzen zuen... "Records" deitzea epaile batek debekatu zigun, eskerrak ez zigula "La Polla" deitzea debekatu.

Baliteke lehen La Pollako jarraitzaileak izandako batzuek orain Aita Santuaren argazkia izatea bandera nazionalaren barruan... Zer esango zenieke?

Tutik ere ez.

Geratzen da benetako punkik ala guztiak postalekoak dira?

Punkiak benetakoak dira, besteak postalak dira.

Zelan gogoratzen duzu zure 'gaztaro alaia' eta zelan ikusten duzu gaurko gaztedia?

Gogoratu baino, han izan nintzela eta bizitzen ari nintzenaren nahiko kontziente izan nintzela dakit. Gaurko gazteak ni gazte nintzenean baino etorkizun gutxiagorekin ikusten ditut.

Hortaz, etorkizunik ez dago?

Ez dago inorendako etorkizunik. Etorkizuna sekula iristen ez den gauza bat da, hobe da orainean izatea, etorkizunetik ez delako inor bueltatzen.

Noiz arte zaude prest agertoki baten saltoak ematen jarraitzeko?

Gustatzen ez zaidala ikusten dudan arte.

Zerk aluzinatzen zaitu?

Gehien aluzinatzen nauena da gizarteko aginte postuak lortzeko inozoek duten gaitasuna.

Rock izar bat zara?

Bai, zera! Izarrek ez dute kaka egiten eta hori txarra da osasunarendako.

Guztiari "amen" esaten jarraitzen dugula uste duzu?

"Amen" edo "ai ene", hor dago gakoa, nahiz eta batzuetan alderantziz joka daitekeen eta goian dagoenak esatea "ai ene" edo "amen" (Historian badaude adibideak).

Zer iruditzen zaizu La Pollak hainbeste jende erakartzea kontzertuetara eta Interneteko bilatzaileek 7.000 bat erreferentzia ematea zuen inguruan? Ez duzu "zezen bat Txekoslobakiako baletean bezala" zineten garaiaren falta sumatzen?

Gauza horiei garrantzia ematen badiezu, ez duzu Txekiako ez eta Eslovakiako baletaren faltarik sumatuko.



JOSETXO ARANZABAL

"Gustatzen ez zaidala ikusten dudan arte jarraituko dut agertokietan salto egiten", dio Evaristok.

"Komunikabideen zeregina da boteretsuen ideiak pobreen buruetan indarrez sartzea"

"Ni ez naiz rock izar bat; izarrek ez dute kaka egiten, eta hori txarra da osasunarendako"

"Gaurko gazteak ni gazte nintzenean baino etorkizun gutxiagorekin ikusten ditut"

ARGITALPENAK/ HIRU LIBURU AURKEZTU BERRI DIRA DEBAGOIENEAN

Natura eta historia, eskutik

MENDI-IBILIAK, MARITXU KAJOI JAIA ETA ALOÑA MENDI ETA HANGO GURUTZEA DIRA BERBAGAI

Hiru liburu aurkeztu dira Debagoienean azken asteotan: *Oñati oinez; Aloña mendikatea eta gurutzearen mendeurrena*; eta *Maritxu Kajoi, 25 urte*. Lehenengo biak Oñatin, hirugarrena Arrasaten. Bakoitzak bere nortasuna dauka, baina badituzte baita ezaugarri komunak ere.

Nork bere erara, baina Oñatiko eta Arrasateko ondarearen hainbat alderdi jorratzen dituzte *Maritxu Kajoi, 25 urte*, *Oñati, oinez* eta *Aloña mendikatea eta gurutzearen mendeurrena* liburuek. Lehenengoa abenduaren 14an aurkeztu zuten egileek; bigarrena, hilaren 18an; hirugarrena 24an ipini zuten jendaurrean.

GUZTIONDAKO INTERESGARRI

Debagoieneko bi herri jakinen gaineko liburuak izan arren, ibarreko gainerako herritarrendako, baita ibarretik kanpokoendako ere, interesgarriak izan daitezke.

Oñati oinez lanak natura du berbagai nagusi. Turismo ekimen baten barne kaleratu dute, eta Oñatiko ibarrean zehar mendi-ibilia egiteko gonbidapen erakargarria dugu. Mendi-ibilia aitzakiatzat hartuta, Oñatiren gaineko beste hainbat alderdi ere lantzen dira.

Natura historiarekin uztartzen du Aloñaren gaineko liburuak. Hango gurutzearen 100. urteurrenaren harira, mendiaren eta gurutzearen gaineko gura beste datu eta bitxikeria batzen ditu lanak.

Maritxu Kajoiren gaineko liburuak ere historia batzen du, baina oso bestelakoa. Arrasateko mugak aspaldi gainditu zituen txikiteroen jai ospetsuak, eta 25 urteak hizkitan eta iruditan laburtu dituzte antolatzaileek.

LEIRE KORTABARRIA



Oñatiko ibilbideen liburua

Urdin Elortza

Oñatin zehar egiteko zazpi ibilbide homologatu eta beste hogei paseo proposatzen ditu *Oñati oinez* liburuak, Turismo eta Garapen Agentziak, Bidezidor taldeak eta Urdin Elortza kazetariak Oñatin mendi-ibilia bultzatzeko egin duten liburua. Luzera eta zailtasun maila desberdineko proposamenak dira. Naturaren bai eta historiaren, arkeologiaren, animalien, landaretzaren, kirolaren, tradizioen… berri ematen du lanak, xehetasun handiz. Turismo Bulegoan eta Oñatiko liburu dendetan eros daiteke.

Maritxu Kajoiren 25 urteak

Maritxu Komisiñue

Arrasateko Maritxu Kajoi jaiak 25 urte bete ditu aurten; hori aintzat hartuta, jaiaren antolatzaileek ospakizunak orain arte eman dituen kontu eta irudi gehienak biltzen dituen liburua plazaratu berri dute: *Maritxu Kajoi, 25 urte*. Hirurogeita hiru orri txukunetan, jaiaren historia, urterik urte gertatu direnak, bitxikeriak eta beste hamaika gauza kontatzen dizkigu liburuak. Argazkiek pisu handia dute, eta horiek batzen nahiko lan izan dute jai komisiokoek. Biona tabernan, Ttukun fotokopia dendan, Hire liburu dendan eta Maalako okindegian dago salgai.

Aloña mendia eta gurutzea, protagonista

Iñazio Irizar

Urrian, Aloñako gurutzeak ehun urte bete ditu. Hori dela eta, Aloña Mendi elkarteak eta Iñazio Irizarrek *Aloña mendikatea eta gurutzearen mendeurrena* liburua aurkeztu dute. 218 orri ditu eta 221 argazki, ia guztiak koloretan, eta horietako batzuk interes historiko handikoak; gainera, hainbat marrazki eta plano ere eskaintzen ditu. Eduki aldetik, bi zati ditu: lehenengoan Aloñaren inguruko datu teknikoak batzen dira; bigarrenean mendiaren eta gurutzearen gaineko mitologia, literatura eta historia.

NIREAUKERA

Ramon Arantzabal
Margolaria

Aspaldi irakurri nuen *Azteca* nobela historikoa, eta hainbeste gustatu zitzaidan, ezen ordudanik ez dut ahaztu eta lagun guztiei gomendatzen diet; hortaz, sail honetan ere gomendatuko dut. Hasi eta bukatu arte alde batera uzten ez diren liburu horietako bat da *Azteca*. Gainera, nahiko sendoa denez, opor egunotan irakurtzeko oso egokia dela deritzot. Espainolak Mexiko aldea kolonizatzera iritsi zirenekoak kontatzen ditu, eta hango jendeak zelan erreakzionatu zuen inbaditzailearen aurrean. Nobela historikoa da, eta asmakizuna benetako gertakizunekin nahasten du. Denetarik dauka: abenturak, azioa, amodioa… Gainera, oso ondo dokumentatua dago, detaile askorekin.

'AZTECA'
Gary Jennings

L. K.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Elkarrizketak

AHO BETE DOINU

Askoren artean
eragin.com
167 orrialde

Ahotsa. Luze eta zabal. Horixe eskaini gura izan diote euskal musikarekin zerikusia duten hogei lagun kualifikaturi. Tabernetan, kontzertuetan, kalean... musikariek elkar topo egiten dutenean Euskal Herriko panoramaz berba egiteko ohitura izaten dute. Horiexek, hain zuzen ere, aurkituko ditu irakurleak liburu honetan.

Hausnarketak hartu dira kontuan eta hausnarketaz josia dator liburu sendo hau, hitzaurrean Jon Ander Ubedak esaten digun moduan.

Liburu honetan batu diren guztiek, Euskal musikagintzaren partaide gisa, etorkizuna eraikitzeko ildoak asmatzen laguntzen digute. Horixe da, hain justu ere, liburuan agertzen zaiguna: panorama musikala argitzeko ekarpena dugu.

LIBURUA / Ipuinak

MALA STRANAKO IPUINAK

Jan Neruda
Ibaizabal
166 orrialde

Fernando Rey izan da itzultzailea. Hau da, duda barik, Nerudak idazle gisa izandako esperientziaren goi maila: jendeen eta eguneroko bizitzaren xehetasunak begi zorrotzez ikusten dituenaren esperientzia, irribarre zelan egin dakien poeta eta kazetari baten. Ezbai barik, narrazio hauek literatura txekiarrean Nerudaren aurretik idatzitako guztiaren gainetik daude.

Kontalaria, dena dela, ikusten duena jasotzen duen behatzaile bat besterik ez da gehienetan. Istorioen azaleko anekdotikotasunaren eta atzealdean gelditzen diren bizitzen tragikotasunaren arteko tentsioa da Nerudak kontalari gisa duen artearen ezaugarri nagusietako bat; eta liburu honetan oso nabari geratzen da.

DISKOA / 'Thrash-core'a

KAOS

Etsaiak
Metak
13 kantu

Maiatzean *thrash-core* talde historiko honek VHS formatuan *Luzemetralla* aurkeztu bazigun, non bere azken bideo klipak eta bestelakoak batzen baitzituen, oraingoan bere estudioko lan berri eta indartsua dakarkigu, eta soinua *sampler* eta *scratch*en bidez eguneratu eta gogortu du.

Etsaiak euskal musika eszenako izenen artean oso ezaguna dugu. Kuban zehar egindako biraren ostean grabatu zuten diskoa, eta orain dela gutxi aurkeztu dute gurean, azaroaren amaiera aldera. Maiatz eta azaroa bitartean grabatu zuten diskoa Musikortan. Nahasketak Garaten, Andoainen, egin dituzte. Durangoko azokarako heldu da lan berri hau eta, gainera, oso ondo saldu ei da.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Abe: 28-Urt: 4

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ANTZERKIA

BERGARA

► **Tutik ere Clowns** pailazoen *Ez adarrik jo* saioa izango da domekan, abenduak 30, pilotalekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA

► **96 unicornios** taldeak *Mari Domingi eta Olentzero* lana aurkeztuko du zapatuan, abenduak 29, kiroldegian, 18:00etan.

MUSIKA

ARRASATE

► **Kañeria 13, Eskizofrenia Rock, Arkada Sozial, Des-kontrol, Fase Terminal, The Remembers, Degeneración, Disasters eta Peter & the Dirty Brothers** taldeek kontzertua eskainiko dute egubakoitzean, abenduak 28, gaztetxean, 17:00etatik aurrera. Kontzertuan bildutako diruarekin Arrasateko musika taldeen CD-bilduma bat atera gura dute.

► **Arrasate Musikaleko Bandak** kalejira egingo du astelehenean, abenduak 31, 11:30etik aurrera.

► **Arrasate Musikaleko Bandak** kontzertua eskainiko du astelehenean, abenduak 31, Amaia Udal Antzokian, 13:00etan.

BERGARA

► **Petti**ren kontzertua izango da egubakoitzean, abenduak 28, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

► **Rock&roll gaua** antolatu dute gaztetxekoek astelehenerako, abenduak 31. Kontzertua eta disko jartzaileen saioa izango dira.

► ***Christmas Nightmare* techno festa** izango da astelehenean, abenduak 31, Jam aretoan, 02:00etatik aurrera.

► **Izturi** taldearen kontzertua izango da egubakoitzean, urtarrilak 4, udaletxean, 19:30ean.

► **Doro eta Asgarth**en kontzertua izango da egubakoitzean, urtarrilak 4, Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

► **Kepa Junkeraren kontzertua** izango da zapatuan, abenduak 29, kiroldegian, Ulma enpresaren eskutik. Gonbidapena behar da, eta turismo bulegoan edo Ulmako Pertsonal Bulegoan eros daiteke.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA

► **Juan Jose Altunaren ikasleen** erakusketa abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra, Murrukixoren lokalean.

BERGARA

► **Herriko margolarien lanen** erakusketa ikusteko aukera izango da datorren martitzenera arte, urtarrilak 1, kultura etxean.

► **Herriko eskultoreen lanen** erakusketa ikusteko aukera izango da urtarrilaren 2tik 13ra, kultura etxean.

► **Udo Frosch-en tailak eta eskulturak eta Josu Iñigezen margoak** daude ikusgai Artekaleko pizzerian.

► **Rikardo Azkargorta** margolari bergararraren lanen erakusketa dago ikusgai Nahikarin urtarrilaren 6ra arte, domeka.

ESKORIATZA

► **Tomas Rubio Roy** eskoriatzarraren margoen erakusketa dago zabalik kultura etxean, urtarrilaren 7ra arte.

► **Margo lehiaketako irabazleen** lanak abenduaren 29ra arte, zapatua, Intxaurtxueta kiroldegian.

OÑATI

► **Ulma enpresaren historiaren** gaineko argazki erakusketa dago ikusgai parrokian, abenduaren 31ra bitartean, astelehena.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **Erakusleiho lehiaketa** egingo da abenduaren 8tik 31ra bitartean.

BERGARA

► **Erakusleiho lehiaketa** egingo da abenduan zehar.

ELGETA

► **Partxis txapelketa** antolatu dute abenduaren 28rako, egubakoitza. 16:30ean izango da.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantzak.** Lehendik izena emanda zutenez gain, parte hartzaile berriak hartuko dituzte. Egubakoitzero, musika eskolan, 19:15.

► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izenematea kultura etxean edo 943 71 10 27 zenbakira deituta.

► **Yogako hastapen ikastaroa izango da urtarrilaren 16tik aurrera.** Izenemate epea zabalik dago. Sadhana yoga taldeak antolatu du. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARRASATE

► **Afrikar perkusioa (dejembea) lantzeko ikastaroa**. Matrikula 3.500 pezeta (21 euro) kostatuko da. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 79 80 25 telefonora eta galdetu Iñakigatik.

BERGARA

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean. Izena emateko, deitu 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefono zenbakietara.

► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Argibideak: 943 76 15 40.

► **Pintura ikastaroa** antolatu du Beart elkarteak. Irakaslea Rikardo Azkargorta bergararra zango da. 656 72 44 49.

► **Heziketarako psikomotrizitate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEDek, 2002ko urtarriletik aurrera. Argibideetarako, deitu 943 76 90 33 telefonora.



► GABONETAKO EKINTZAK

UMEENDAKO JOLASPARKEAK, OPORRETARAKO AUKERA ONENA

Gabonetan, arrazoi askorengatik, umeak izaten dira protagonista. Oporrak izaten dituzte, eta gura bezainbat jolas egiteko aukera ederra: alde batetik, Olentzerok eta Erregeek ekarritako jostailuekin; eta, bestetik, Debagoieneko herri gehienetan antolatzen diren jolasparkeetan. Joan den astetik daude zabalik jolasparke hauetako ateak, baina datozen egunotan ere halaxe jarraituko dute Antzuolan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan eta Oñatin. Puzgailuak, jostailuak, ur parkea, karaokea, artisautza eta eskulan txokoak… horra hor, besteak beste, parkeok eskaintzen dutena.

Non: Oñatin. **Noiz:** Urtarrilak 31, astelehena. **Ordua:** Izenematea, 16:00etan; lasterketa, 16:30ean eta 17:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Aizkorrira mendi irteera** antolatu du Arriolak astelehenerako, abenduak 31.

► **Umeendako jolasparkea** izango da zabalik egubakoitzean, urtarrilak 4, pilotalekuan. Ordutegia honakoa izango da: 10:30-12:30 eta 16:00-19:00.

ARETXABALETA

► **Poxpolin Park** jolasparkea izango da zabalik herriko ume guztiendako abenduaren 29ra arte.

► **Bizar Zuri** Erregeen mezularia ibiliko da herrian zehar astelehenean, abenduak 31. Kiroldegitik irtengo da 18:30ean.

► **Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak** eta Aretxabaletako Udalak kale bilkura egingo dute astelehenean, abenduak 31, plazan, 19:00etan.

► **Santamas eguneko txerriaren zozketan** parte hartu zuten guztiei antolatzaileek jakinarazten diete 9.708 izan dela saritutako zenbakia. Txartela duena jar dadila harremanetan jai antolatzaileekin.

ARRASATE

► **Txikilandia jolasparkea** izango da zabalik Musakolako kiroldegian urtarrilaren 2tik 5era, honako ordutegiarekin: 11:00-14:00 eta 16:00-20:00. Urtarrilaren 5ean, goizean bakarrik zabalduko dute.

► **Bidezko merkataritza azoka** antolatu du Harreman gobernuz kanpoko erakundeak abendu osorako. Seber Altube plazan egingo dute, frantziskotarren lokaletan.

BERGARA

► **Umeendako jolasparkea** izango da zabalik abenduaren 28an Labegaraieta kiroldegian.

► **Erreketako hegazti eta ugaztunak** ezagutzeko behatze-irteera antolatu du Pol-Pol mendizale taldeak abenduaren 29rako. Argibideak eta izenematea euren egoitzan edo 943 76 48 51 telefonoan.

► **Aisialdi ekintzak** izango dira kartzela zaharrean 8 eta 11 urte bitartekoendako. Urtarrilaren 2an, jolasak izango dira; 3an, eskulanak; eta 4an, Matrakan lehiaketa.

► ***Itoitz european tour*** bideoaren emanaldia izango da eguenean, urtarrilak 3, gaztetxean, 22:00etan. Gero, solidarioek hitzaldia egingo dute.

ELGETA

► **Umeendako jolasparkea** izango da zabalik abenduaren 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an. Pilotalekuan izango da, eta ordutegia, honakoa: 15:30etik 18:00etara.

'4 ITZAL', BERGARAKO GAZTETXEAN

Bergarako gaztetxeko dinamizatzaileek hainbat ekintza antolatu dituzte Gabon hauetarako; horien artean, 4 Itzal taldearen kontzertu bat. Zapatuan izango da, gaztetxean, 22:30ean. Taldeak bere disko berria aurkeztuko du. X-at eta Dedors taldeak ere arituko dira.

► **Ur parkea** izango da zabalik abenduaren 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an, frontoian, 15:30-18:00.

ESKORIATZA

► **Umeendako jolasparkea** izango da zabalik abenduaren 29ra arte, Intxaurtxueta kiroldegian.

GASTEIZ

► **Miss Araba** aukeratzeko jaialdia egubakoitzean, abenduak 28, Gorbeia merkataritza gunean, 20:00etan.

LEINTZ GATZAGA

► **Ume eta aita-amendako hainbat ekintza** antolatu ditu herriko guraso elkarteak: abenduaren 28an, diapositiba emanaldia izango da ludotekan, 16:00etan; 29an, Eskoriatzara irteera, antzerkia ikustera; urtarrilaren 2an, izotz jauregira eta Txiki Parkera irteera; 3an, Gasteizera irteera, zinemara; eta 4an, ipuin kontaketa, ludotekan, 16:00.

OÑATI

► **San Silbestre herri lasterketa** antolatu dute abenduaren 31rako, Oñatin. Hamargarren aldia izango du aurten. Izenematea doan izango da, Oñatiko plazan, 16:00etatik 17:00etara. Gero, bi lasterketa jokatuko dira: bata, 16 urtetik beherakoendako, 16:30etik aurrera; parte hartzaileek hiru buelta eman beharko diote Atzeko kaleko zirkuituari. Beste lasterketa, helduena, 17:00etan hasiko da, eta bi buelta eman beharko diote ohiko zirkuituari (8.350 metro). Parte hartzaile guztien artean Gabonetako saski eder bat zozkatuko dute.

► **Umeendako jolasparkea** izango da abenduaren 28ra arte Zubikoan.

► **Umeendako, Erregetako marrazki lehiaketa** antolatu du Txuntxurunberde dendak. Errege egunera arte eman daitezke marrazkiak.

MUSEOAK

ARETXABALETA

► **On Jose Maria Arizmendiarrieta museo-gela berritua.** Otalora jauregian, Urkulura bidean.

ESKORIATZA

► **Eskoriatzako Museo Eskola.** Hidalga 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi. Argibideak: 943 71 47 46.

AZPEITIA

► **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza 8. Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

Zinema

ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

Atlantis
Egubakoitza eta astelehena: 17:00, 19:00.
Zapatua, domeka eta martitzena: 17:00, 19:30.

Sólo mía
Egubakoitza, zapatua, domeka, astelehena eta martitzena: 22:00.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Training Day
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

El Mosquetero
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena, ik. eguna: 17:00.

Nueve reinas
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.

OÑATI

■ **SANTA ANA**

El Mosquetero
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Harry Potter
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:30, 22:30.
Astelehena: 17:00.
Martitzetik eguenera: 16:30, 19:30, 22:30.

La leyenda del unicornio (euskaraz)
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

Spy game (juego de espías)
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00.

El señor de los anillos
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30, 00:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 20:30.
Astelehena: 16:30.

Ni una palabra
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:30.

American Pie 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:00.

Ratas a la carrera
Egubakoitza, zapatua, domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Astelehena: 17:30.

En construcción
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 22:30.

El señor de los anillos
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30, 00:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 20:30.
Astelehena: 16:30.

Kiriku y la bruja
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

American Pie 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Astelehena: 17:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

Ni una palabra
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Astelehena: 17:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

Spy game (juego de espías)
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Astelehena: 17:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos
Egubakoitza, zapatua, domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 16:30, 19:45, 23:00.
Astelehena: 17:00.

Atlantis, el imperio perdido
Egubakoitza, zapatua, domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15.
Astelehena: 17:30.

Harry Potter
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 19:45, 22:30, 01:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 16:45, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00.

Amelie
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 01:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 22:45.

Noche de Reyes
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15, 22:45.
Astelehena: 17:30.

Moulin Rouge
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:45, 01:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 20:15, 22:45.

Princesa por sorpresa
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15, 22:45.
Astelehena: 17:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Italiano para principantes
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, eguaztena eta eguena: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 12:30, 17:30.
Martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.

El hijo de la novia
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30.

Kiriku eta sorgina
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

La leyenda del unicornio
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

¿Quién es Cletis T...?
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:30.

Sin noticias de Dios
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00.

Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

Noche de Reyes
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:30.

Las aceras de Nueva York
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00.

Amelie
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00.

■ **STER ZINEMAK**

Ni una palabra
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:40 (goizekoa), 16:10, 18:25, 20:40, 22:55, 01:15 (gauekoa).
Astelehena: 16:10, 18:25.
Martitzena: 18:25, 20:40, 22:55.

Spy game (juego de espías)
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:05 (goizekoa), 16:05, 18:35, 21:05, 23:30.
Astelehena: 16:05, 18:35.
Martitzena: 18:35, 21:05, 23:30.

Harry Potter
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:00 (goizekoa), 16:10, 19:10, 22:15, 01:10 (gauekoa).
Astelehena: 17:30.
Martitzena: 19:10, 22:15.

American Pie 2
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 16:20, 18:30, 20:40, 22:45, 01:00 (gauekoa).
Astelehena: 16:20, 18:30.
Martitzena: 18:30, 20:40, 22:45.

El señor de los anillos
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:15 (goizekoa), 16:00, 19:30, 23:00.
Astelehena: 17:00.
Martitzena: 17:00, 20:30, 00:00.

Qué noche la de aquel día
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:35 (goizekoa), 16:25, 18:15, 20:05, 22:00, 23:50.
Astelehena: 16:25, 18:15.
Martitzena: 18:15, 20:05, 22:00, 23:50.

Kirikou y la reina
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:20 (goizekoa), 16:30, 18:10.
Astelehena: 16:30, 18:10.
Martitzena: 18:10.

Noche de Reyes
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 12:25 (goizekoa), 16:15, 18:20, 20:45, 22:50, 00:55 (gauekoa).
Astelehena: 16:15, 18:20.
Martitzena: 18:20, 20:45, 22:50.

Ratas a la carrera
Egubakoitza, zapatua, domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 19:50, 22:10, 00:30 (gauekoa).

Anastasia
Zapatua eta domeka: 12:10.

Titán A.E.
Zapatua eta domeka: 12:30.

Goizeko emanaldiak, zapatuan eta domekan.
Gauekoak, egubakoitzean eta zapatuan.

KRITIKA

LA INGLESA Y EL DUQUE

PUNTUAZIOA: ●●●●

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

ZUZENDARIA: Eric Rohmer.
AKTOREAK: Lucy Russell eta Jean-Claude Dreyfus.

Momentu honetan, *Harry Potter y la piedra filosofal* eta *El señor de los anillos* ikuskizunen jabeak direnean, badira beste film eder eta interesgarri batzuk ere. Horietako bat Eric Rohmer-ena, hau da, laurogei urte beteak dituen zuzendari frantziarraren azkeneko lana: *La inglesa y el duque.* Filmean, bere zinema egiteko estiloari uko egin barik, teknologia digital berriak erabiltzen ditu.

Filmak baditu bi puntu aipagarri: lehenengoa, zuzendari moduan laurogei urtetik gorako gizona ikustea, argitsu eta ahalmentsu, zinema egiten jarraitzeko. Bestalde, ez dira sarritan ikusten adineko jendeari lan egiteko aukera ematen dieten ekoizleak.

Bigarren puntu aipagarria da, eta garrantzitsuena, Rohmer zuzendariak zein ondo erabiltzen dituen teknologia berriak; baina hori bai, horiek bere betiko estiloari moldatzen dira. Zuzendariaren lanen ezaugarri nagusienetariko bat elkarrizketen agerpen oparoa da. Naturaltasun osoz erakusten digu gaurko zineman arraro samarra den gauza bat: berbetan dakiten pertsonaiak, hau da, berba egiten eta entzuten duten pertsonaiak. Horregatik, *La inglesa y el duque*

ganbara-lana da, Frantziako Iraultzan kokatua egon arren, lan barnekoia delako. Filmak bi pertsonaia garrantzitsu ditu, Grace Elliot dama ingelesa eta Orleansko Dukea, eta elkarren arteko harremanen bitartez, eta ia-ia zeharka, iraultzaren ezaugarri eta eraginak ikusteko aukera ematen zaigu. Esan dezakegu, era berean, ganbara-lana dela filmaren zatirik handiena, etxeko ganbaretan igarotzen delako. Hori bai, *La inglesa y el duque* filmaren ezaugarri azpimarragarri bat kanpoaldekoen erabilera da. Kanpoalde guztiak artifizialak dira, baina edertasun handikoak. Denek koadroak dirudite, berehala bizitza hartzen duten koadroak (pertsonaiak barnean mugitu egiten dira). Honela ikus daiteke efektu digitalek ez daukatela zergatik filmaren protagonista bihurtu behar.

Filma, Rohmer-en eskutik, lan intimista eta harmoniatsu bihurtzen zaigu. Zuzendariak oso ondo uztartzen ditu modernitatearen osagaiak eta berak zinema ikusteko eta egiteko duen era.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Doneztebe Portukon etxebizitza salgai. 21.500.000 pezeta. Berogailua. Sotoa eta garajea, aukeran. 943 79 84 57 edo 943 79 96 83.

Bergara. Burdiñaten etxebizitza salgai. Hiru logela, 40 m²ko terraza. Aukeran, 15 m²ko garajea. 943 76 59 34 edo 943 76 44 95.

Bergara. Madura kalean etxebizitza salgai. Berritua. 943 76 05 17 edo 666 72 47 12.

Oñati. Santa Marina plazan etxebizitza salgai. 26.500.000 pezeta. 943 78 09 79.

102. EROSI

Aretxabaletan edo inguruan baserria erosiko nuke. 616 75 41 30 Iñaki.

104. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Asko jota bi logela. 649 55 64 85.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira. 943 77 16 54.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. San Andresen garajea salgai. Txindoki dorrea. 943 79 39 30.

Arrasate. Uribarri etorbidean garajea salgai. 943 77 06 68. Deitu 20:00etatik aurrera.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Boni Laskurain kalean garajea ematen da errentan. 943 76 57 04.

Arrasate. Olarte kalean garajea ematen da errentan. 943 79 19 23.

Bergara. San Lorentzon garajea ematen da errentan. 666 46 65 45.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Ekonomian lizentziaduna lan egiteko gertu. 943 76 06 74. Deitu 16:00etatik 19:00etara edo utzi mezua.

Mutila lanerako gertu. 943 76 06 74. Deitu 16:00etatik 19:00etara edo utzi mezua.

Emakumea gertu umeak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 658 74 10 69 edo 699 18 79 38. Lide.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak edo gaixoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Etxe berean bizitzeko prest egongo nintzateke. 943 27 41 81; 660 25 18 88. Flor.

Mutila gertu ostalaritzarako edo garbiketa lanak egiteko. 679 89 37 26.

Neska gertu umeak zaintzeko. 943 79 42 89. Alejandra.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699 17 73 73.

Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu edozein lan egiteko. 617 72 47 83 edo 943 77 02 17.

Bergara. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 39 34. Deitu 20:00etatik aurrera.

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GIZAINTZA

GIZAINTZA

DEBAGOIENEAN ETXEZ ETXEKO ZERBITZURAKO LAGUNTZAILEAK BEHAR DIRA.

INFORMAZIORAKO:
943 78 27 86
943 44 08 60
Curriculumak honako helbidera bidali:
Kale Barria 54
Etxaluze
20560 **OÑATI**

ARAMAIO

JATETXE BATEN SUKALDARIA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA
945 44 50 86
ORDUTEGI INTERESGARRIA

ELGETA

JATETXE BATEN SUKALDARIA BEHAR DA
943 76 82 84

BERGARA

JATETXERAKO NESKA ETA TABERNARAKO PERTSONA BAT BEHAR DIRA
943 76 50 99

LAN ESKAINTZAK

BARREN astekarian PUBLIZISTA eta MAKETATZAILEA behar dira

PUBLIZISTA lanerako. (Erref.001). **Eskatzen da:** Ikasketa ertainak eta harremanetarako dohaina.
Baloratuko da: Marketing/Publizitate ezagutzak, komertzial lanetan esperientzia eta autoa edukitzea.

MAKETATZAILE lanerako. (Erref.002). **Eskatzen da:** Macintosherako QuarkXPress eta Photoshop programen ezagutza.

Urtebeterako lan kontratua, berritzeko aukerarekin.

Curriculumak (erreferentzia adieraziz) urtarrilaren 3a baino lehen:

BARREN astekaria.
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

5/ IRAKASKUNTZA

502. ESKAERAK

Bergara. Fisikako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 10 58.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Land-Rover Discovery salgai. 1996koa. Ondo zainduta. 652 77 40 03.

Toyota Avensis autoa salgai. Hiru urte. 50.000 Km. 626 95 57 86. Nerea.

Opel Vectra 2000 autoa salgai. 130 zaldi. Garajean gordetakoa. 666 46 65 45.

Opel Cadett autoa salgai. SS-AK. 943 79 74 34.

Aprilia 50 SR motoa salgai. 1996koa. 100.000 pezeta. 619 28 63 36.

Honda CV Seven Fiti 750 salgai. 15.000 Km. 943 78 90 30.

Yamaha XU 600 eta BMW K100 LT motoak salgai. 943 76 17 64.

Peugeot 309 SS-AD autoa salgai. 100.000 pezeta. 943 76 17 64.

Scooter Beta Ark motoa salgai. 75.000 pezeta. 943 79 93 19.

Honda Dominator 650 motoa salgai. VI-N. 400.000 pezeta. 609 45 38 27.

BMW autoa salgai. 150.000 Km. Egoera eta prezio ona. 649 46 93 23.

604. DENETARIK

Bi kate joko eta bi bateria salgai. Berriak. 943 71 51 15.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Indioilar bikotea salgai. 943 76 64 65.

Bi hilabeteko txakurra salgai. Artzain alemana eta setter nahasketa. 943 79 77 13. Gauez.

703. EMAN

Espaniel arrazako txakurrak opari eginen ditut. 943 79 05 26.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Homeride HR 115 bizikleta estatikoa salgai. Sei funtziodun konputagailuarekin. 943 76 36 11. Eider.

Nintendo 64 hiru jokorekin salgai. 80 €. 639 50 51 85.

802. EROSI

Bankuko billeteak eta era guztietako metalezko txanponak erosten ditut. 945 44 50 44. Deitu 20:00etatik aurrera.

806. GALDU

Bergara. Graduatutako betaurrekoak galdu nituen frontoi inguruan. Eskertuko da. 943 76 05 13.

Arrasate. Abenduaren 17an (astelehena) zilarrezko eskumuturrekoa galdu nuen. 943 79 71 05.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutila gertu 40 eta 50 urte bitarteko emakumeekin noizbehinkako eta debaldeko harremanak izateko. 656 75 47 22. Deitu 16:00etan. Jose.

CLUB IYOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Urte berrian debagoiendarren ekimenak aurrera egin dezala.
Gure herrian bakea eta guztien etxeetan
ZORIONA OPA DIZKIZUE
Debagoieneko Industrialdeak.

Telefonoa: **943 79 62 80**
Faxa: **943 79 76 19**
Posta-e: **debagoiena@industrialdea.spri.es**

AIPAGARRI

Jesus Catania

ARETXABALETA

Jesus Catania izango da MCCko presidente berria. Altsasuarra da, baina Aretxabaletan bizi da aspalditik. Industria Ingeniaritza ikasitakoa da Catania. Iaz, abenduan, eman zuten aditzera Jesus Catania izango zela presidente berria; ordutik hona, Cancelorekin lan egin du, buruz buru.

Ander Etxeberria

MONDRAGOE

AED elkarteak antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketan, Ander Etxeberria mondragoetarra izan da irabazlea. 1.250 euroko saria jaso du. Ander ingeniaria da eta LKS enpresan egiten du lan. *Energia iturriak XXI. mendean* zen gaia, eta frantsesetik euskararako itzulpena egin du.

Xabier Zubizarreta

MONDRAGOE

Ezker abertzalearen Udalbiltzako biltzar nagusia egin zuten abenduaren 15ean. Urteko balantzea eta datorren urterako egitasmoa izan zituzten hizpide, besteak beste. Batzorde eragile berria ere izendatu zuten. Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea, izango da batzordeko kideetako bat.

Agapito Morenok eta **Irene Prieto**k, Burgoskoak biak, **50 urte** bete dituzte ezkonduta. Burgosko Aceña de Lara herrian ezkondu ziren 1952ko urtarrilaren 5ean. Urtarrilaren 5ean, Uribarriko parrokian meza izango dute, eta gero bazkaria, familiakoekin. Zorionak eta urte askotarako, bikote, familiaren partetik!



María Josefa Expósito eta **Antonio Ortiz** mondragoetarrak 1976ko abenduaren 24an ezkondu ziren Eskoriatzako San Pedro parrokian. 25 urte bete dituzte, hortaz, ezkonduta. Landan ospatu dute urteurrena, eta 33 lagun elkartu ziren. Zorionak, ondo pasatu eta urte askotarako, familia osoaren partetik!



Sara Landa Zubizarreta bergararra, **Igor** osabarekin eta **Irati** lehengusinarekin. Sara abenduaren 18an jaio zen, eta 3,200 kilo pisatu zuen. **Felipe** eta **Jaione** dira Sararen gurasoak, bergararrak biak.

Danel Susaeta Gisasola, Aitor, aitaren besoetan, eibartarrak biak. Abenduaren 18an jaio zen Danel, eta 4,370 kilo pisatu zuen. **Ana** da Danelen ama, eibartarra hura ere.

David Oñati Simón eta **Roberto** aita, mondragoetarrak biak. David abenduaren 17an jaio zen, eta 4,080 kilo pisatu zuen. **Marta** da Daviden ama, tuterarra azken hau.

ASTEBUKAERAKOEGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euri txikiak · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

ZAPATUA, 29

Lainoak izango ditugu protagonista zapatuan, egun osoan. Euri txikia egingo du; mendialdean, baina, euri gehiago egingo du, eta sarriago. Tenperaturari dagokionez, gutxi bada ere, gora egingo du zapatuan. Haizea, berriz, hego-mendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:
Lainoak eta ostarteak.
Errioxa: Egun eguzkitsua.
Pirinioak: Eguzkia nagusi.

DOMEKA, 30

Domekan ez da asko aldatuko eguraldia. Egun lainotsua izango dugu domeka ere, eta euri txikia egingo du; mendialdean, berriz, zapatuan moduan, euri gehiago egingo du. Tenperatura ez da aldatuko, eta haize arina ibiliko da egun osoan, hego-mendebaldetik.

Nafarroako Erribera:
Lainoak eta ostarteak.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Zaparradak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

0,1º C

ILARGIAREN ALDIAK: ABENDUA

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
07	14	22	30

EGUZKIA: ABENDUAREN 30a

Sortu 08:40 · Gorde 17:59

URKULUKOURTEGIA

Behera egiten jarraitzen du Urkuluko ur mailak. Izotza izan dugu oraingo astean ere protagonista, baina euri gutxi egin digu. Joan zen astean %71 zen urtegiko ur maila.

% 70,1

ARANTZAZUKOSANTUTEGIA

MEZAK

Astegunetan
08:30, 12:00.
Zapatuetan
08:30, 12:00, 19:30.
Domeka eta jaiegunetan
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

BEHARREZKOTELEFONOAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrialdiak)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 76 53 40
Oñati	943 78 23 12
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospitalea	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 79 74 58
Bergara	943 76 24 40
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Abere hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elkartea	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Kapirixo	943 71 63 23
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AED	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 64 80
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

ZENBAKISARITUAK

BONOLOTOA

EGUAZTENA 26	MARTITZENA 25	ASTELEHENA 24	EGUBAKOITZA 21
01 • 02 • 03 15 • 24 • 39	03 • 08 • 22 26 • 48 • 49	09 • 19 • 25 28 • 30 • 44	03 • 05 • 07 26 • 34 • 44
OSAGARRIA: 17 ITZULKETA: 02	OSAGARRIA: 32 ITZULKETA: 00	OSAGARRIA: 35 ITZULKETA: 04	OSAGARRIA: 06 ITZULKETA: 04

LOTERIA PRIMITIBOA

Saritzarra DOMEKA 23	ZAPATUA 22	EGUENA 20
06 • 16 • 22 36 • 37 • 46	04 • 05 • 10 17 • 33 • 36	02 • 13 • 22 27 • 35 • 40
OSAGARRIA: 49 ITZULKETA: 08	OSAGARRIA: 43 ITZULKETA: 00	OSAGARRIA: 04 ITZULKETA: 01

ONCE

EGUAZTENA 26	MARTITZENA 25	ASTELEHENA 24	DOMEKA 23	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 21	EGUENA 20
78.710	**ZOZKETARIK EZ**	**35.944**	**39.300** (020 seriea)	**51.291** (114 seriea)	**94.241**

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza

Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Aretxabaletako Udala · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Elgetako Udala · Eskoriatzako Udala · Leintz Gatzagako Udala · Oñatiko Udala

AUTOBUSORDUTEGIA/PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / **Z:** Larunbatak / **J:** Jaiegunak eta Igandeak

DONOSTIA-GASTEIZ

BERGARA			ARRASATE			ESKOLA P.			ARETXABALETA			ESKORIATZA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45	07:15	09:15	07:00	07:30	09:30	07:45	—	—	07:05	07:35	09:35	07:10	07:40	09:40
07:15	08:15	11:15	07:30	08:30	11:30	13:20			07:35	08:35	11:35	08:40	08:40	11:40
08:15	09:15	14:15	08:30	09:30	15:30				08:35	09:35	15:35	09:40	09:40	14:40
09:15	11:15	15:15	09:30	10:30*	14:30				09:35	10:35	14:35	10:40	10:40	15:40
11:15	13:00	17:15	10:30	11:30	16:30				10:35	11:35	16:35	11:40	11:40	16:40
13:00	14:15	18:30	11:30	12:30*	17:30				11:35	12:35	17:35	12:40	12:40	17:40
14:15	15:15	19.15	12:30*	13:15	18:30				12:35*	13:35	18:35	13:40	13:40	18:40
14:25	18:30	21:15	13:15	13:30*	18:45				13:20	14:35	18:50	14:50	14:40	18:55
15:15	19:15	21:45	13.30*	15:30	19:30				13.35*	15:35	19:35	15:40	15:40	19:40
16:00	20:30		14:30	14:30	21.30				14:45	16:35	21:35	16:40	16:40	21:40
18:30	21.15*		14:40	16:30	22:00				15:35	17:30		17:40	17:40	
19:15	21:45		15:30	17:30*					16:35	18:35		18:40	18:40	
20.30			16:15	18:30					17:35*	19:35		18:55	18:55	
21.15*			16:30	18:45					18:35	21:35		19:40	19:40	
21.45			17:30*	19:30					18:50			21:40	21:40	
			18:30	20:45					19:35			22:10*		
			18:45	21:30					21:35					
			19:30	22:00					22:05*					
			20:45											
			21:30											
			22:00											

(*) Landatik.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

GASTEIZ			ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:30**	06:30**	08:30**	06:20	07:05**	09:05**	06:25	07:10**	09:10**	06:30	07:20*	09:20**	06:45	07:35*	09:35**
07:30	07:30	09:00	07:05**	08:05	09:35	07:10**	08:10	09:40	07:20**	07:20*	09:50	07:35**	07:35*	10:05
08:30**	08:30**	10:30**	08:05	09:05**	11:05**	08:10	09:10**	11:10**	08:20	08:20	11:20**	08:35	08:35	11:35**
09:30**	09:30**	12:30**	09:05**	10:05**	13:05**	09:10**	10:10**	13:10**	09:20**	09:20**	13:20**	09:35**	09:35**	13:35**
10:30**	10:30**	15:30**	10:05**	11:05**	16:05**	10:10**	11:10**	16:10**	10:20*	10:20**	16:20**	10:35	13:35	17:35*
11:30*	11:30*	16:30*	11:05**	12:05*	17:05*	11:10**	12:10*	17:10*	10:20*	11:20**	17:20*	13:35*	13:35**	19:35*
12:30*	12:30	17:30**	12:05*	13:05*	18:05**	12:10*	13:10*	18:10**	11:20**	12:20*	18:20**	13:35*	14:35	20:35*
12:30*	12:30*	18:30*	13:05**	13:05*	19:05*	13:10**	13:10*	19:10*	12:20*	13:20*	19:20*	14:35	17:35*	21:35**
13:30*	13:30*	19:30*	14:05*	14:05*	20:05*	14:10*	14:10*	20:10*	13:20*	13:20*	20:20*	15:35	19:35	
15:30**	14:30*	20:30**	15:05	15:05*	21:05**	15:10	15:10*	21:10**	13:20*	14:20*	21:20**	17:35*	20:35*	
14:30	15:30**		16:05**	16:05**		16:10**	16:10**		14:20*	15:20*		18:45	21:35**	
16:30*	16:30*		17:05*	17:05*		17:10*	17:10*		15:20	16:20**		19:35		
17:30**	17:30**		18:05**	18:05**		18:10**	18:10**		16:20*	17:20*		20:35*		
18:30	19:30**		19:05	19:05		19:10	19:10		17:20*	18:20**		21:35**		
19:30*	20:30**		20:05*	20:05*		20:10*	20:10*		18:20**	19:20				
20:30**			21:05**	21:05**		21:10**	21:10**		18:30	20:20*				
									19:20	21:20**				
									20:20*					
									21:20*					

(*) Landatik.
(*) Eibarreraino
(*) Bergararaino

DONOSTIA-BILBO

DONOSTIA			ANTZUOLA			BERGARA			ELGETA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
07:00	07:00	08:30	08:30	09:18	10:00	06:35*	09:10	10:10	08:50	09:20	10:20
16:30	16:30	19.00	09:40	12:05	17:55	08:40	12:15	18:10	14:00	18:20	18:20
			12:05	19:35	18:35	09:50	18:10	18:45	18:20		20:50
			16:40		20:30	12:15	19:45	20:40			
			17:15		22:05	13:45	20:50	22:15			
			18:00			16:50					
			19:35			17:25					
			20:40			18.10					
						19:45					
						20:50					

(*) Astelehenetan bakarrik. Bergara-Eibar-Bilbo autopistatik

BERGARA-OÑATI

BERGARA	OÑATI
A	A
07:20	07:40
09:35	09:55
13:35	13:55
16:35	16:55
18:35	18:55
19:35	19:55
20:45	21:05
Z	Z
20:45	21:05

BILBO-DONOSTIA

BILBO			ELGETA			BERGARA			ANTZUOLA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
08.00	08:00	09:00	08:50	08:50	09:50	08:00*	08:00*	09:30*	08:10*	08:10*	09:40*
17:00	17:00	17:00	14:05*	17:50	17:50	09:00	09:00	10:00	09:10	09:10	10:10
			17:50			11:00*	14:00*	18:00*	11:10*	14:10*	18:10
						14:00*	18:00	18:30	14:10*	18:10	18:40*
						15:00*	20:30●		15:10*		
						17:00*			17.10		
						20:30*			18:10		
						18:00					
			(*) Elgeta-Bergara.			(*) Bergara-Zumarraga.			(*) Bergara-Zumarraga.		
						(*) Bergara-Antzuola.					

OÑATI-BERGARA

OÑATI	BERGARA
A	A
07:00	07:20
08:00	08:20
13:10	13:30
13:55	14:15
16:05	16:25
16.15	16:35
17.10	17:30
19:10	19:30

OÑATI-ARRASATE-BILBO

OÑATI			ARRASATE		
A	Z	J	A	Z	J
09:15	09:15	19:15	09:30	09:30	19:30
18:15	18:15		18:30	18:30	

BILBO-ARRASATE-OÑATI

BILBO			ARRASATE			OÑATI		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
14:30	14:30	12:00	15:30	15:30	22:00	15:45	15:45	22:15
20:00	20:00		21:00	21:00		21:15	21:15	

BERGARA-ARRASATE-BILBO

BERGARA			ARRASATE		
A	Z	J	A	Z	J
06:30	07:15	14:30	06:45	07:30	14:45
14:30	14:30	19:15	14:45	14:45	19:30

BILBO-ARRASATE-BERGARA

BILBO			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
12:30	12:30	12:30	13:30	13:30	13:30	13:45	13:45	13:45
20:00	20:00	19:30	21:00	21:00	20:30	21:15	21:15	20:45
		21:00			22:00			22:15

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

BERGARA			OÑATI			ARRASATE			ARETXABALETA			ESKORIATZA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
07:25	09:35*	14:35*	07:00	07:00*	09:00	07:20	06:20	09:20	07:30	06:30	15:00	07:40	06:40	15:10*
08:35*	11:35*	16:35*	07:45*	09:00*	11:00	07:40	07:20*	11:20	07:50	07:30	15:30	08:00	07:40*	15:40
09:35	13:35	18:35*	09:00	11:00*	13:00	08:05*	09:20*	13:20	08:15*	09:30	17.00	08:25*	09:40*	17:10*
10:35*	15:35*	21:05*	11:00	13:00*	15:00	08:50*	09:50*	14:50*	09:00*	10:00	17.30	09:10*	10:10*	17:40
11:35*	16:35	21:35*	13:00*	15:00	17:00	09:20	11:20*	15:20	09:30	11:30	19:00	09:40	11:40*	19:10*
12:35	17:35		14:00	17:00	19:00	09:50	11:50*	16:50*	10:00	12:00	19:30	10:10	12:10*	19.40
13:35	18:35*		15:00	19:00	21:00	10:50*	13:20*	17:20	11:00*	13:30		11:10*	13:40*	
14:35*	19:35		17:00	21:00	22:00	11:20	13:50	18:50*	11:30	14:00		11:40	14.10	
15:35*	21:05		19:00			11:50*	15:20	19:20	12:00*	15:30		12:10*	15:40	
16:35	21:35*		20:00*			12:50	15:50*	21:20*	13:00	16:00		13:10	16:10*	
17:35*			21:00			13:20*	16:50	21:50*	13:30*	17.00		13:40*	17:10	
18:35*						13:50	17:20	22:20	14:00	17.30		14:00	17:40	
19:35						14:20	17:50		14.30	18:00		14:40	18:10	
21:05*						14:50*	18:50*		15:00*	19:00		15:10	19:10*	
21:35						15:20	19:20		15:30	19:30		15:40	19.40	
						15:50*	19:50		16:00*	20:00		16:10	20:10	
						16:50	21:20		17.00	20.30*		17:10		
						17:20	21:50*		17.30			17:40		
						17:50*			18:00*			18:10		
						18:50*			19:00*			19:10		
						19:20			19:30			19.40		
						19:50			20:00			20:10		
						20.20*			20.30*			20:40		
						21:20*								
						21:50								

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			OÑATI			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45*	07:45*	14:45*	06:55*	07:55*	14:55*	05:55	08:05*	08:35	07:40*	08:55*	08:55	06:10	08:20*	13:20
07:00*	09:45*	16:15	07:10*	09:55*	16:25	07:05*	08.35*	09:35	08:55	10:55*	09:55	07:20*	10.20*	15:20*
07:45	10:15*	16:45*	07:55	10:25*	16:55*	07:20*	10:05*	11:35	10:55	12:55*	11:55	08:20	12:20*	17:20*
08:15	11:45*	18:15	08:25	11:55*	18:25	08:05	10:35*	13:05	12:55*	14:55	14:55	09:20*	14:20*	19:20*
08:45*	12:15*	18:45*	08:55*	12:25*	18:55*	08:35	12:05*	14:35	13:55	16:55	16:55	10:20*	15:20	20:20*
09:45*	13:45*	19:45*	09:55*	13:55*	19:55*	09.05*	12:35*	15:05*	14:55	18:55	18:55	11:20	16:20	
10:15	14:15	20:15	10:25	14:25	20:25	10:05*	14:05*	15:30	16:55	21:05	20.55	12:20	17:20*	
10:45	14:45		10:55	14:55		10.35	14:35	17:05*	18:55			13:20*	18:20	
11:45	15:45		11.55	15:55		11:05	15:05	18:35	19:55*			14:20*	19:20	
12:15*	16:15		12:25*	16:25		12:05	16:05	19:05*	21:05			15:20	20:20*	
12.45*	16:45*		12:55*	16:55*		12:35*	16:35	20:05*				16:20*		
13:15	17:45		13:25	17:55		13:05*	17:05*	20:35				17:20*		
13:45*	18:15		13:55*	18:25		13:35	18:05					18:20		
14:15	18:45		14:25	18:55		14:05*	18:35					19:20*		
14:45	19:45*		14:44	19:55*		14:35	19:05					20:20		
15:45*	20:15		15:55*	20:25		15:05	20:05*							
16:15			16:25			16:05*	20:35							
16:45*			16.55*			16:35								
17:45			17:55			17:05*								
18:15			18:25			18:05								
18:45*			18.55*			18:35								
19:15*			19:25*			19:05								
19:45			19:55			19:35*								
20:15			20:25			20:05								
20:45			20:55			20:35								
						21.05								

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

BERGARA			ANTZUOLA		
A	Z	J	A	Z	J
08:00	08:00	09:30	08:10	08:10	09:40
14:00	14:00	18:30	14:10	14:10	18:40

IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR

IRUÑEA			ANTZUOLA			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
10:30	10:30	17:00	12:05	12:05	18:35	12:15	12:15	18:45
18:00	18:00	20:30	19:35	19:35	22:05	19:45	19:45	22:15

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Espero 24 orduko tartea		Suge handia Momentu		Arabako herria	
	Izena Zainetako likidoa					
Ezizenak Deitura		Egonkortasun Aurrizkia				
			Txakur Iodoa			
Arrain mota Kanpo						
		51 Adorea, kemena		500 Bilo		Joan zaitezte!
Ikas eta Ari Beldur			2000an Sortu zintuena			
	Aluminioa Hortzetako mintza			Oxigenoa Joan nadin		
Zoramena Neba						
			Azti ezaguna Bromoa			
Gipuzkoako herria Alderdi karlista			Zenbaki bakoiti Bokala			
	Adi!					

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Izaro Aperribai

ITSASUAN, ATUNETAN

Itsasuan, arrantzan, sekulako behelaiñua zeguan eta ez zan apenas ikusten. Holako baten, argi bat ikusi dau batek urriñera. Eta:

- Aupa, zer, gu atunetan!
- Bai, gu be bai.
- Eta nunguak zate ba?
- Lekeitxiokuak!
- Gu be bai!
- Eta, kapitaiña?
- Kapitaiña markiñarra!
- Guria be bai!

Holako baten, irten da kapitaiña eta:

- Beno, danak logelara, bihar ez dago alkoholik!

MUNDUKO ZIRKURIK HAUNDIXENA

- Ezetz jakin zein dan munduko zirkurik haundixena!

- Ez

- Ba, San Mames, hamaika lehoi eta 40.000 paillazo.

AUSTRALIAR BAT EUSKAL HERRIAN

Australiar bat etorri da Euskal Herrira, hemengo baserrixak eta landa lurrak ezagutzera. Mondragoeko baserritar lagunarengana juan da. Bazkal ostian, australiarra eta laguna, Land Roverrian, juan die baserriko lur sailak ikustera. Iluntzerako, berriz be etxian dare. Afal orduan, euren artian berriketan, esan dotsa australiarrak lagunari:

- Ba, nik, han Australian daukaten lur sailak ikusteko, nere autuan lau egun bihar izaten dot.

Eta, baserritxarrak:

- Bai, entzun dot, hango autuak oso motelak diela!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zein ez da Debagoienean jaio?

Hona hemen gaur eguneko lau pertsonaiaren izenak. Hiru Debagoienean jaioak dira eta bat ez. Asmatuo?

- Juan Martin Elexpuru. Idazlea.
- Jose Luis Gorrotxategi. Bertsolaria.
- Anne Igarteburu. Telebista aurkezlea.
- Alberto Iñurrategi. Mendizalea.

Erantzun zuzena: Anne Igarteburu elorriarra da. Elexpuru eta Gorrotxategi bergararrak dira eta Iñurrategi aretxabaletarra.

SOLUZIOAK

	●	I	●	A	●	
	E	G	U	N	A	
	●	U	N	A	I	
●	G	●	O	R	E	K	A
L	O	I	D	I	●	O	R
●	I	Z	O	K	I	N	A
A	T	●	L	I	●	D	●
●	I	K	A	●	I	A	Z
I	Z	U	●	A	L	●	O
●	E	R	O	M	E	N	A
A	N	A	I	A	●	O	Z
●	A	I	A	●	B	A	T
E	K	A	●	E	R	N	E

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21
Garai honetan familia, turroia, xanpaina eta alaitasuna baino ez duzu izan behar buruan. Urte ona izan duzu, beraz azken egunotan lasaitu eta gozatu urte amaieraz.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21
Haserreak eta liskarrak ahaztu eta poztasunez bizitzeko garaia da. Utzi lana alde batera egun batzuetan. Urte oso ona izan duzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21
Gorabeherak izan dituzu urte osoan, baina ez da batere txarra izan, beraz orain, gozatu amaitzeko falta diren egunez. Gainera erabaki garrantzitsuak hartzeko bolada ezin hobea da. Baliteke senideekin liskarrak izatea, baina laster konponduko dituzue.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22
Urtea amaitzearekin batera, jakituriaz betetakoa izan dela ikusiko duzu. Denetatik ikasi duzu, onetik zein txarretik. Loteriarik erosi ez baduzu, ahalegindu, baliteke eta zer edo zer irabaztea.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22
Senideekin egoteko egunak izan arren, zu, zuretzat garrantzitsua den familiatik kanpoko norbaitekin egongo zara. Urtea nahiko ona izan da. Ahaztu atsegin izan ez duzuna. Egunotan baten bat zure bihotzeraino helduko da: prest egon.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22
Urte amaitzeko falta den aldian ez zara beti bezain lanpetuta ibiliko. Maitasunarentzako egun aproposak. Gertakariz eta harreman berriz betetako urtea izan da. Hala era, datorren urtea hobea izango da.

LIBRA
irailak 23-urriak 22
Egun hauek oso bereziak dira zuretzako, bakea, lasaitasuna eta poztasuna baitakarte. Aurten asmo asko gauzatu dituzu eta espero zenuena lortu duzu. Baliteke azken egunotan albiste onak izatea maitasun kontuetan.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22
Egun hauek etxean sartuta emango dituzu gehienbat. Lasai eta gustura ibiliko zara. Zuretzat balio handia duen zerbaiten alde ahalegintzeko beharra igarriko duzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21
Urtea ondo amaituko duzu diru kontuetan. Ezustekoak nagusi egunotan, onak eta ez hain onak. Ohi baino bizitasun handiagoa. Erabil ezazu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20
Gauza batzuk erdizka utzi dituzu aurten, baina egin dituzunak ondo egin dituzu. Agian maitemindu egingo zara egunotan. Zorizko jokoetan eta loterian ondo ibiliko zara. Hala ere, ez jokatu bururik barik.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20
Azkenaldian txarrera joan diren arazoak konpondu beharko dituzu lagunekin. Egunotan, aspaldidik nahi zenuen oparia egingo dizute.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20
Aurtengo Gabonak ez dira zuk nahi duzun modukoak izango, batzuetan bakarrik egoteko gogoa izango baituzu, baina ez duzu horretarako aukerarik izango. Dena den, gustura ibiliko zara senide eta lagunekin. Erabakiak hartu beharko dituzu, beraz argitu zalantzak lehenengo eta ondoren egin egin beharrekoa.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a

Bergara, Oñati eta Elgetako udalek ere bat egin dute Goiena elkartearekin

BERGARAKO ETA OÑATIKO UDALBATZARREK ONARTU DUTE DAGOENEKO LANKIDETZA HITZARMENA; ELGETAKOAK LASTER ONARTUKO DU

ENEKO AZKARATE

Bergara, Oñati eta Elgetako udalek ere bat egingo dute Goiena egitasmoarekin. Horrenbestez, gure ibarreko udal guztiek eta Aramaiokoak Goiena multimedia egitasmoa diruz laguntzeko konpromisoa hartu dute.

Bergara, Oñati eta Elgetako udalak ziren Goienari baietza emateko geratzen ziren udal bakarrak. Beste seiek aurtengo martxoan sinatu zuten lankidetza akordioa Goienarekin. Hitzarmena Aramaioko Udaletxean sinatu zuten, hain justu, martxoaren 15ean, Goienaren aurkezpen ofizialaren atarian. Orain, negoziazio luzeen ostean, akordioa egin du Goienak Aramaion hitzarmena sinatu ez zuten hiru udalekin. Bergarako eta Oñatiko udalbatzarrek joan den astean onartu zituzten lankidetza hitzarmenak. Elgetan ez da oraindik gaia osoko bilkuran eztabaidatu, baina ez da arazorik izango han ere lankidetza hitzarmena sinatzeko.

GOIENKARIA

Hitzarmenari esker Debagoien osoan ikusi ahal izango da laster Goiena Telebista. Argazkian, Maider Osa, GOITBko iluntzeko albistegiko aurkezlea.

TELEBISTA, HERRI GUZTIETARA

Hitzarmenari esker, Goiena telebista ibar osora zabalduko da aurki. Gaur egun, ez da herri guztietan ikusten. Oñati, Antzuola eta Elgetako ia etxe guztietan ezin daiteke GOITB ikusi. Bergaran, seinalea herri osora zabalduta dago orain dela hilabete batzuetatik hona, San Migelen antena txiki bat jarri zuen-eta Goienak. Hala ere, esan behar da etxean ganoraz ikusteko, egokitzapen batzuk egin behar direla teilatuko antenetan. Horretarako, onena da teknikoekin harremanetan jartzea. Lan erraza da egin beharrekoa. Antzuolako Udalak hasiera-hasieratik egin zuen bat Goiena egitasmoarekin, baina arazo teknikoak tarteko, antzuolar gehienek ezin izan dute orain arte GOITB ikusi. Goienaren eta herriotako udalen asmoa da arazo tekniko horiek lehenbailehen konpontzea eta ibarreko etxe guztietan GOITB ganoraz ikusteko aukera izan dezatela.

BERGARAN ETA OÑATIN ONARTU DUTE

Bergaran eta Oñatin joan den astean egin zituzten hitzarmenak onartzeko udalbatzarrak. Hitzarmen biak oso antzekoak dira, baina Oñatikoak baditu berezitasunak; izan ere, Oñatiko herri aldizkaria, *Kontzejupetik*, eta irratia, Oñati Irratia, Udalak kudeatzen ditu eta aurrerantzean ere hala izango da. Bestalde, Oñatin, oraingoz, *Kontzejupetik* aldizkaria ez da formatuz aldatuko eta hilabetekari izaten jarraituko du. Hortaz, Oñatiko Udalak GOITB eta GOIENKARIAren atal komuna diruz laguntzeko konpromisoa hartu du.

Bergaran, ostera, Goienak kudeatzen du *Berrigara* astekaria, berau Jardun elkartearena baita, eta ez Udalarena. Bergarako Udalak, hortaz, GOITB, GOIENKARIAren atal komuna eta *Berrigara* diruz laguntzeko konpromisoa hartu du. Hain justu, GOIENKARIA eta *Berrigara* astekariengatik 832 pezeta emango ditu biztanleko, eta beste horrenbeste Goiena Telebistarendako. Oñatin, GOIENKARIA astero banatu ahal izateko, 208 pezetako dirulaguntza emango du eta beste 832 pezeta biztanleko Goiena Telebistarako. Diru kopuru horiek 2002. urterako adostu dira. Bukatzear dagoen 2001. urteari dagokionez, Bergarako eta Oñatiko udalek dirulaguntzak emango dituzte, batetik, GOIENKARIA abian jartzeagatik eta kaleratze-aldiagatik eta, bestetik, Goiena Telebista abian jartzeagatik.

BAZKIDE LAGUNTZAILE

Oñatiko udalbatzarrak onartutako hitzarmenean jasotzen denez, Oñatiko Udala Goiena kooperatibako bazkide laguntzaile bihurtuko da. Hortaz, 200.000 pezetako kapital ekarpena behin betiko egiteko konpromisoa hartu du Oñatiko Udalak, bazkide laguntzaile bihurtzeko baldintza moduan. Bergaran adostutako hitzarmenean, ostera, ez da puntu hori jasotzen, Bergarako Udalak ez daukalako, oraingoz, Goienako bazkide laguntzaile izateko asmorik. Ibarreko gainerako udalak Goienako bazkide laguntzaile dira. Jakina, Elgetako udalbatzarrak ez du hitzarmena onartu, aipatu dugun moduan, eta ikusteko dago Goienako bazkide laguntzaile izatea erabakitzen duen edo ez. Elgetako udalbatzarrak aurki hartuko du erabakia.

Goiena Kooperatiba Elkarteko Zuzendari Nagusia Iñazio Arregi, pozik agertu da, Debagoieneko udal guztiek bat egingo dutelako Goiena egitasmoarekin.

Udalek eta Goienak adostutakoa

1. Bergara, Elgeta eta Oñatiko udalek, Goiena telebista hiru herrietan behar den moduko kalitatez ikusteko, beharrezko baliabide ekonomiko eta teknikoak bideratuko dituzte. Baliabide horien zenbatekoa zehazteko, ibarreko gainerako herrien ekarpenak eta Goienaren gestio-plana hartuko dira kontuan.

2. Aldizkariei dagokienez, herri bakoitzak arlo horretan dituen berezitasunak kontuan hartuta, akordioak herriz herri egiten saiatzeko konpromisoa hartu dute bi aldeek, betiere berezitasunok errespetatuaz.

3. Era berean, bai herriotan dauden gainerako komunikabideei (irratia, adibidez) eta Goienak eskaintzen dituen beste komunikazio zerbitzu batzuei (telematika) dagokienez ere, tokian tokiko akordioak egiten saiatuko dira.

4. Akordioaren iraupena tokian tokiko telebisten lege-ordenamendua iritsi artekoa izango da. Edozein modutan ere, handik aurrera sortuko den egoera berria moldatzeko, berriro negoziatzeko ateak irekita lagatzen dituzte bi aldeek.

5. Goienak konpromisoa hartu du bere aginte-organoetan udalek izango duten parte hartzea handitzeko.

Hauek dira, alde batetik, Goienako eta, bestetik, Bergara, Oñati eta Elgetako udaletako ordezkariek adostutako hitzarmenaren ildo nagusiak.

GOIENKARIA

Ibar osoko berriak zabaltzen ditu GOITBk. Argazkian, Amagoia Lasagabaster.

Jarraituizarrari

SPORTLAND
FORUM SHOPS

Garibai Etorbidea 2-6
Arrasate Gipuzkoa

TheNorthFaceAtlantis

Lehen: 7.690Pta **46.22** €
Orain: 5.995Pts **36.03** €

Adidas3SMatt

Lehen: 4.995Pta **30.02** €
Orain: 3.995Pts **24.01** €

PolarA3

Lehen: 14.900Pta **89.55** €
Orain: 13.495Pts **81.10** €

BHAthenes Magnetic

Lehen: 52.800Pta **317.33** €
Orain: 44.995Pts **270.42** €

Abenduaren 1etik 2002ko urtarrilaren 5era arte edo izakinen agorpenera arte balioko du eskaintza honek

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@goiena.com
Aretxabaleta 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@goiena.com
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko abenduaren 28a

Atzeskua

MAIDER OSA

Asier Aranguren/ Kazetaria

Bizkaitar bihurtutako aretxabaletarra?

Izatez aretxabaletarra naiz, eta gipuzkoartzat dut nire burua. Baina azken urteotan Bizkaian bizi gara, Elorrioko Gazeta auzoan. Hala ere, goizero-goizero Udalatx da ikusten dugun lehen gauza.

Kiroletako aurkezle izateagatik famatu egin zena aspaldian ez dugu ikusi kirolak aurkezten.

Egia da. Kirolak aurkezten urte askoan ibili nintzen, eta famatu baino, ezagun bihurtu nintzen, batez ere, kirolzaleendako eta ETB1 ikusten zutenendako. Hala ere, uste izan nuen nahikoa izan zela, eta hura ez zela niretako erronka profesionala. Ohitura bihurtu zen eta, horregatik, aldatzea erabaki nuen.

Kazetari tituluduna zara, baina ETBn badira titulu bakoak. Kazetari izateko beharrezkoa da titulua izatea?

Kazetari izateko ez da titulurik behar. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle izan naiz Kazetaritza sailean, eta uste dut norbaitek 18 urterekin jakinez gero kazetari izan gura duela, merezi duela Kazetaritza Fakultatetik pasatzea. Hala ere, uste dut kazetaritzan senak, kuriositateak eta komunikatzeko gaitasunak ere pisu handia daukatela.

Asier ala "Kixkur"?

Ni beti Asier izan naiz. "Kixkur" ETBko kirol erredakzioan asmatu zuen norbaitek, baina kizkurrak ere, geroago eta gutxiago.

***Oinak izarretan* edukitzea ez da arriskutsu samarra? Aukeran, lurrean hobeto, ezta?**

Oinak oso lurrean dituenak gero izarretara eramaten ditu. Oinak izarretan edukitzea ametsak izatea da. Ametsak beti eduki behar dira, eta gauzatzen saiatu. Hori da bizitzako erronkarik ederrena: oinak izarretan eduki, ametsak sinistu eta gauzatzen ahalegindu, baina eguneroko bizimoduan oinekin lurra zapalduz.

Zer ikasi duzu Iñurrategitarren espedizioko kide izatean?

Bi urteotan, nire bizitza hori izan da, eta bizitzaren zati horretako esperientziarik gehienak eskaini dizkit: lagunak, momentu oso gogorrak eta munduan dauden mendigune ederrenak ikusteko aukera.

Amets txar bat?

Lagun on bat mendian galtzea.

Euskal Herriko Unibertsitatean ala ETBn gusturago?

Ahal dela, biak batera, baina orain dudan lanarekin ez da bateragarria. Irakaskuntza asko gustatzen zait, baina kazetari lana, gehiago.

Zure *nahia* egi bihurtu ondoren, orain umeei ipuinak kontatzen ere ikasi beharko duzu, beste gauza batzuen artean.

Oraindik ipuinak kontatzen ez, baina hasi beharko gara horretan ere.

"Kazetaritzan senak, kuriositateak eta komunikatzeko gaitasunak ere pisu handia daukate"

"Irakaskuntza asko gustatzen zait, baina kazetari lana, gehiago"

"Ametsak beti eduki behar dira, eta gauzatzen saiatu"

► *Aretxabaletarra / 36 urte / EITBko kazetaria*

PIPERRAUTSA

Horribilis?

Munduari begiratuta, samur esan diteke 2001 urtea *annus horribilis* izan dela. Gauza gehienek okerrera egun dute aurten.

Bazen zerbaiten adierazgarri Sharonek eta Bushek hauteskundeak irabazi izana. Eta errematea irailaren 11koak ekarri zuen. Geroztik, bataren eta bestearen alde gogorra ikus ahal izan dugu. Oro har, segurtasunak gaina hartu die askatasunei, eta zilegi da Afganistani erasotzea edo Palestina suntsitzea; inork ez du txintik egiten. Bitartean, Madrilgo bele beltzak irri egin du, bibote azpian.

Munduan, Irlandak eman digu poz bakarretakoa. Bejondeiela!

Ekonomian, lehendik zetorren gainbehera bizkortu egin da azkenaldian, eta langileen kaleratzeak hasi dira. Ez ei da krisialdia luzeegia izango. Ez bedi!

Euskal Herriko giro politikoa orain urtebetekoa baino apur bat lasaiagoa da. Ez gaude ondo, baina orduan ezin zen arnasarik ere hartu. Hori bai, urtebetean zubi asko apurtu da eta berririk ez da eraiki. Ezker Batua Jaurlaritzan sartu izana gustatu zait, eta Elkarri-ren Bake Konferentzia ere bai. Ez dago, ordea, txapliguetarako arrazoirik. Ideia berriak behar dira, impassetik irteteko.

Bitartean, Debagoiena aurrera doa. Zarata handi barik, komunitate indartsua sortzen ari da gurean. Ez arazorik gabea, baina sendoa.

Munduan nahiko *horribilis*. Hurbilean hobe.

MIKEL IRIZAR

gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa,1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Arrasate — Bergara
gelatzu — Zubillaga
Oñati

- Era guztietako azulejoak.
- Bainu altzariak eta osagarriak.
- Kabinak eta hidromasaje bainerak.